

# PRAKTIKA EGOKIAK

Buru osasun arazoak dituzten pertsonen  
gizarteratzean eta laneratzean



Fedeafes

Buru osasuneko  
arazoa duten pertsona  
eta senide elkarten  
Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi  
de asociaciones de  
familiares y personas con  
problemas de salud mental

Fedeafesen elkarteekin  
lankidetzan egindako azterlana:



AGIFES



asafes



asasam



AVIFES

Babeslea:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

FEDEAFESek eta bere barne dauden Agifes, Asafes, Asasam eta Avifes elkarteek eginiko azterlana.  
EDE Fundazioarekin laguntza teknikoarekin.  
2017an egina.

**Buru Gaixotasuna duten Pertsona eta Senide Elkarten Euskadiko Federazioa (FEDEAFES)**

Tres Cruces 14, behe eskubitara · Arza industrialdea · 01400 Laudio - LLodio (Araba)

[www.fedeafes.org](http://www.fedeafes.org) · [fedeafes@fedeafes.org](mailto:fedeafes@fedeafes.org)

Lege-gordailua: BI-02717-2019



Fedeafes

Buru gaixotasuna  
duten pertsona  
eta senide elkarten  
Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi  
de asociaciones de  
familiares y personas  
con enfermedad mental

Erabilera ez komertziala (by-nc): Eduki honetatik abiatuz beste lan batzuk sortzeko aukera dago, beti ere erabilera komertzialik ez badute. Jatorrizko txostena ere ezin da erabili helburu komertzialekin.

# AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA .....	1
2. METODOLOGIA .....	2
2.1.- Helburuak .....	2
2.2.- Prozesu metodologikoa .....	2
2.3.- Teknikak .....	3
3. ZER ULERTZEN DUGU PRAKTIKA EGOKITZAT LAN ETA ENPLEGU-SUSTAPENEAN? .....	4
4. NOLA IDENTIFIKATU DIRA PRAKTIKA EGOKIAK? .....	6
5. PRAKTIKA EGOKIAK LAN ETA ENPLEGU-SUSTAPENEAN BURU OSASUN ARAZOAK DITUZTEN PERTSONEKIN: PRAKTIKA NABARMENENAK.....	6
6. PRAKTIKA EGOKIEN AZTERKETATIK ATERATAKO ONDORIOAK.....	56
7. ERANSKINA:.....	59
8. ERANSKINA I: INTERESEKO BESTE PRAKTIKA BATZUK GIZARTERATZE ETA LANERATZEAN .....	59
9. ERANSKINA II: DATUEN BILKETA FITXA .....	71

## 1. AURKEZPENA

Lana bizitzaren erdigunean dagoen funtsezko rola da pertsona guztientzat, horretara bideratzen dugun denborarengatik, behar ekonomiko eta psikosozialak asetzeagatik, eta bizitzako beste atalekin dituen loturengatik.

Buru osasun arazoak dituzten pertsonen kasuan, lan munduko atea irekita edukitzea oinarritzkoa dela esan daiteke errekonperazio psikosozialerako prozesuan. Hala eta guztiz ere, buru osasun arazoak dituzten pertsonen lanpostu bat lortzeko zailtasun handiak dituztela erakusten dute datuek.

Desgaitasuna duten pertsonen enpleguari buruzko ikerketetatik ondorioztatu daitekeenez, kolektibo horrek zailtasun handiak ditu lanpostu bat lortu eta mantendu ahal izateko. INE Espainiako estatistika institutuak egindako Desgaitasuna duten Pertsonen Enplegu Inkestaren arabera, **EAEn, desgaitasuna duten pertsonen jarduera tasa POF<sup>1</sup>P %49koa zen** 2014an. Azken urteetan tasa hori handitzen joan den arren – estatu mailako aktibitate tasaren gaineratik dago, 13 puntu –, **gaur gaurkoz desgaitasunik ez duten pertsonen jarduera tasaren azpitik dago nabarmen (%76,2).**

Buru osasun arazoak dituen kolektiboaren enplegu datuei begiratuta bakarrik, datuak are eta okerragoak dira. Inkesta berak azaltzen duenez, **buru desgaitasuna daukaten pertsonen dute jarduera tasarik txikiena (%25,5).**

Ildo horretan, FEDEAFES eta hura osatzen duten entitateek interesa agertu dute kolektiboa lan munduan sartzea sustatzeko eta buru osasun arazoak dituzten pertsonak ahalduzko. Erreminta baliagarriak direla iritzi diote kolektiboa normalizatu eta gizarteratzeko.

2016an, entitate horiek EDE FUNDAZIOAREkin batera, EAEn buru osasun arazoak dituzten pertsonak lan munduan txertatzeko baliabide mapa bat osatu zuten. Txosten horretan kolektiboa laneratzeko hainbat bitarteko zehaztu zituzten, eta baliabideen eskaintza hobetzeko erronkak zehaztu zituzten.

Horrez gain, 2017an zehar, buru osasun arazoak dituzten pertsonak laneratzeko praktika egokiak bilatzen aritu dira. **Hainbat esperientzia arrakastatsuren azterketetan ikasitakoa kontuan hartuta, EAEn, egun, buru osasun arazoak dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzeko dagoen baliabide eskaintza nondik nora hobetu jakiteko asmoz egin dute bilaketa hori.**

Txosten hori hainbat testuingurutan martxan jarritako esperientzia arrakastatsuetan oinarrituta dagoela baliatuz, desgaitasun, eta, zehazki, buru osasun arazoak dituzten pertsonen laneratzeko aritzen diren pertsona eta profesionalentzat tresna erabilgarri eta inspiratzaile izatea nahi dute.

Buru osasun arazoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko enplegu arloan martxan jarri diren ekintzak ezagutarazi nahi dira hemen zehaztutako praktika egokiak hautaketa honen bidez. Zentzu horretan, hainbat entitatek aurrera eraman dituzten jardueren berri eman nahi du FEDEAFESek, esperientzien eta emaitzen elkartrukea sustatuz, eta, era berean, horien egokitzapena eta eramangarritasuna.

<sup>1</sup> Desgaitasun maila %33koa edo handiagoa

## 2. METODOLOGIA

### 2.1.- HELBURUAK

Ikerketa honen helburua, egun, EAEn, **buru osasun arazoak dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzeko baliabide eskaintza nola hobetu daitekeen ezagutzea izango da, eta, horretarako, hainbat esperientzia arrakastatsutatik jasotako ondorioak erabiliko dira.**

Hori aurrera eramateko, honako helburuak ezarri dira:

- Hainbat lurraldetan buru gaixotasunak dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzeko praktika egoki batzuk sakonago ezagutzea.
- Buru gaixotasuna duten pertsonak gizarteratu eta laneratzeko zerbitzu eta programen gakoak identifikatzea.
- Buru gaixotasuna daukaten pertsonen autonomia eta gizarteratze maila handiagoa lortzeko martxan dauden programa eta zerbitzuak arrakastatsukoak izateko nola hobetu daitezkeen zehaztea.

Bestalde, egitasmo honek FEDEAFES eta hura osatzen duen entitateek hainbat lurraldetako elkarteekin daukaten elkarlana eta kohesioa bultzatzen duela nabarmendu daiteke. Horrez gain, enplegu arloan edota buru gaixotasuna duten pertsonekin lan egiten duten inguruko beste agenteekin aliantzak sortzen laguntzen du.

### 2.2.- PROZESU METODOLOGIKOA

Zehaztutako helburuak lortu ahal izateko, batik bat, metodologia **kualitatiboa** erabiliz garatu da egitasmoa.

Proiektua hiru fasetan garatu da:



Proiektuaren barruko hainbat jarduera aurrera eramateko **talde eragile** bat laguntzen aritu da posta elektronikoz bidez. Talde hori honako pertsonen osatu dute: EDE Fundazioko ordezkariak —persona bat gizarte ikerketa aplikatua eskarmentuduna—, FEDEAFESeko bi lagunek, enplegu arloko nahiz sarea osatzen duten erakundeetako parte-hartze zuzeneko hainbat profesionalak (AGIFESeko persona bat, ASASAMeko

beste bat, ASAFESeko bi eta AVIFESeko beste bat) eta FEDEAFESeko Lehen Pertsonan Batzordeko lagun batek.

Talde eragilearekin egindako lanari esker, talde eraikuntzarako parte-hartze formula bat asmatu ahal izan da.

## 2.3.- TEKNIKAK

### 1.- DOKUMENTUEN AZTERKETA

Dokumentuak sakonki aztertu dira laneratze eta enplegu-sustapenean praktika egokiak ezagutu ahal izateko bai buru osasun arazoak dituzten pertsonen kolektiboan, baita beste kolektibo batzuetan ere (desgaitasuna duten pertsonak, biztanleria orokorrean...).

Praktikak ezagutzeko informazio-iturriak hautatzerako orduan, tokian tokiko, estatuko eta Europako erakunde, instituzio eta entitateetara jo dute egiaztatutako ibilbide eta jarduera dutenak, ezagunak direnak eta aitortpena daukatenak (irizpide geografiko horren bidez esperientzia esanguratsu eta askotarikoak topatu nahi izan dira, hori baitzen hasierako asmoa). Hautatu diren esperientziak hainbat baldintza bete behar izan dituzte, iturri garrantzitsuetatik etortzeaz gain: egunean egotea, fidagarriak izatea, egokitasuna, zehaztasuna, irisgarritasuna, eta batik bat, txostenari balio erantsia ematea.

### 2. INFORMAZIO BILKETA FITXA

Informazioa jasotzeko garaian, espresuki horretarako diseinatutako galdetegi bat osatu zen, hautatutako praktika egokiaren informazioa sakondu eta aberasteko. Tresna horren bidez, informazioa jasotzeko prozesua zuzentzea izan da asmoa, Praktika Egokiak finean eduki behar dituen alderdi guztien aukeraketa errazteko, eta, horrenbestez, hori Praktika Egokitzat hartu eta izendapen hori egokia dela egiaztatzeko.

Tresna horren erabilpena errazteko edukiak bi dimentsioetako analisisian antolatu dira, aurrez aipatutako irizpideak kontuan hartuta<sup>2</sup>P.

### 3. LAN MINTEGIA

Proiektuaren bigarren fasean, aurrez aurreko lan saio bat egin da, ikaskuntzak jaso eta horiek elkarrekin aztertzeko. Saio hori maiatzaren 16an egin zen, Vitoria-Gasteizko Iparralde Zentro Zibikoan, eta talde eragileko kide guztiek parte hartu zuten. Horrez gain, talde eragilearen hausnarketan buru osasun arazoak dituzten pertsonen enpleguan eskarmentua duten beste profesional batzuen partaidetza ere bultzatu zen. Zehazki, Gaztela Leongo buru osasun elkarterko bi lagun (FEAFES CYL). Guztira, hamar lagunek parte hartu zuten saio honetan.

---

#### Saioko partaideak (16/05/2017)

---

<sup>2</sup> Fitxa eranskinean ikus daiteke

**Mari Jose Cano** (FEDEAFESeko kudeatzailea), **Amaia Arbaiza** (FEDEAFESeko proiektuen arduraduna), **María Isabel García** (FEDEAFESeko Lehen Pertsonan Batzordeko ordezkaria), **Josune Larreategi** (ASASAM zentro okupazionalako zuzendaria), **Justi Gestoso** (ASAFESeko lan teknikaria), **Endika Minguela** (ASAFESeko Enplegu Zentro Bereziko arduraduna), **Resu Casanova** (AVIFESeko Gizarte eta Heziketa saileko arduraduna), **Noelia Cabrera** (Gaztela Leongo buru osasun federazioko Lan Integrazioko teknikaria), **Ángel Lozano de las Morenas** (Gaztela Leongo buru osasun federazioko kudeatzailea (FEAFES CYL)) eta **Irama Vidorreta** (EDE FUNDAZIOko teknikaria))

**Ezin izan ziren agertu**

**Veronica Pazos** (AGIFESeko Gizarte Langilea)

### 3. ZER ULERTZEN DUGU PRAKTIKA EGOKITZAT LAN ETA ENPLEGU-SUSTAPENEAN?

Lan eta enplegu-sustapen arloan Praktika Egokiak definitzeko hainbat modu daude. Zentzu horretan, praktika egokitzat joko dira:

*“**Ekintza, metodologia eta tresnak (1), buru osasun arazoak dituzten (2) pertsonen lan eta enplegagarritasunean (3) martxan jarritakoak, enpleguaren aurrean kolektiboaren kokapena hobetzeko gaitasuna frogatu dutenak, laneratzea kalitate eta kantitateari (4) dagokionez hobetuz, eta beste esperientzia/programa/testuinguruetara eramateko (5) aukera eskaintzen dutenak**”.*

Definizio honetatik ondorioztatu daiteke:

- Praktika egokitzat jotzen dira hainbat entitatek aurrera eramaten dituzten programa zehatzak, baina baita beste inizatiba batzuk ere kolektiboaren artean enplegua sustatzeko aukera berriak sor ditzaketenak: metodologiak, tresnak, hedapen edota sentsibilizazio kanpainak, enpresetan lortutako akordioak, administrazio edo enpresekin egindako lan hitzarmenak, Gizarte-Erantzukizun Programak, informazio eta edukidun datu baseak etab.
- Praktika egokiaren bilaketa ez dago hertsiki enpleguari lotuta, eta beste jarduerak batzuk ere kontuan hartzen dira, buru osasun arazoak dituzten pertsonak lan arloan aktibatzea zuzenduta dauden ekintzak, kasu: formakuntza, orientazioa, coach...
- Bilaketa bakarrik buru osasun arazoak dituzten pertsonekin aurrera eramandako ekintzetan oinarrituko da. Edozein modutan, beste kolektibo batzuekin (desgaitasuna, bazterkeria arriskua, biztanleria orokorrean) aurrera eramandako praktika onak nabarmentzea ere baliagarritzat jo da, interes

bereziko praktikak direla kontuan hartuta, eta buru osasun arazoak dituen kolektiborako potentzialki transferigarriak.

- Kolektiboaren gizarteratze eta laneratzea hobetuko duten praktikak bilatzea da helburua bai kantitateari dagokionez (horien eraginpean dauden pertsona kopurua kontuan hartuta) baita enpleguaren kalitatearen aldetik ere (prestigio handiagoko lanpostuak, egonkortasuna etab.).
- Praktika egoki horiek transferigarriak izan behar dute, testuinguru zehatz batzuetarako espresuki diseinatutakoak izan beharrean.

Gainera, Praktika Egoki maila lortzeko, inizatiba batek hainbat baldintza bete behar ditu praktika egokiaren definizioarekin bat datozenak.

Ikerketa honetan definitzeko erabiliko diren elementuak UNESCOk ezarritakoak dira MOST (Management of Social Transformations)<sup>3</sup> programaren eremuan. Bertan kontzeptuaren ezaugarriak zeintzuk diren zehaztu ditu; zeintzuk diren bereizten dituen elementuak. Oro har, Praktika Egokiak honakoa izan behar du:



## 4. NOLA IDENTIFIKATU DIRA PRAKTIKA EGOKIAK?

Lehenik eta behin, **esperientziak bilatzeari** ekin zitzaien. Esperientzia horiek, printzipioz, laneratze eta enplegu-sustapen ikuspegitik aurretik zehaztutako praktika egokiaren irizpideak betetzen zituzten, ikerketa taldearen iritziz. Guztira, **35 praktika egoki** identifikatu zituzten. Praktika gehienak (28) buru osasun arazoak dituzten pertsonen martxan jarritako inizatibak izan dira, eta gainontzeko zazpiak beste kolektiboekin (desgaitasuna, gizarte-bazterkeria, biztanleria orokorrean etab.).

<sup>3</sup> <http://www.unesco.org/new/en/social-and-human-sciences/themes/most-programme/>



Hasierako bilaketaren ondoren, praktika egokien **behin betiko hautaketarekin** jarraitu zuten; horiek bukaerako txostenean jasoko zituzten. Aukeraketa hori egiterako garaian, egiaztatu zen esperientzia horiek aurrez zehaztutako irizpideak betetzen zituztela praktika egokitzat hartzeko. Talde eragilea osatzen duten pertsonak izan ziren praktika egokien azken hautaketa egin zutenak. Horietatik guztietatik 11 aukeratu dituzte adibide argitzaile edo praktika nabarmendu gisa, baina, azkenik, **10 praktiken**.<sup>4</sup> **informazioa jaso ahal izan dute.**

Behin esperientzia praktika egokia izan zitekeela egiaztatu ondoren, entitatearekin harremanetan jarri ziren eta fitxa bat betetzeko eskatzen zitzaion informazio osagarria jasotzeko. Kasu batzuetan, informazioa bigarren mailako iturrien bidetik jaso dute.

## 5. PRAKTIKA EGOKIAK LAN ETA ENPLEGU-SUSTAPENEAN BURU OSASUN ARAZOAK DITUZTEN PERTSONEKIN: PRAKTIKA NABARMENENAK

Dokumentu honetan aurkezten diren praktika egokiak buru osasun arazoak dituzten pertsonen laneratze eta enplegu-sustapenean martxan jarritako askotariko ekintzen adibideak dira. Gogoratu behar da lan honen helburua ez dela praktika egokien bilaketa sakona egitea, baizik eta askotariko praktikak biltzea eta horien bidez hausnarketa bultzatzea, gerora, antzeko iniziatibak martxan jartzea ahalbidetzeko.

**Laneratzeko hainbat modutan** arreta jartzen duten praktikak dira hautatutakoak, horietan guztietan ekintza sustatuz. Adibideak kategoria hauen arabera sailkatu dira: lan-prestakuntza eta trebakuntza, lan bitartekaritza, enpresa-ekintzak, enpresa-sarearen parte-hartzea, gizarateratze eta laneratzearen esku-hartze integrala eta beste sarbide motak (sentsibilizazioa, metodologia berritzaileen garapena etab.). Zehaztu beharra dago ere aurkeztutako praktika gehienak ez direla sarbide mota horietara mugatzen; edonola ere, forma horietako batzuetan arreta jartzen dute, eta horren arabera sailkatu egin dira.

Dokumentuan batik bat buru osasun arazoak dituzten kolektiboarekin gauzatutako praktika egokiak nabarmentzen dira, kolektibo horrekin landutako ekintzak ikusarazteko. Hala eta guztiz ere, beste kolektibo batzuekin aurrera eramandako praktika interesgarriak ere nabarmendu nahi izan dira (gizarte-bazterkeria egoeran daudenak, biztanleria orokorrean...) ekimen horiek interesgarriak izateaz gain, aukera ematen dutelako beste egoera batzuetara transferitzeko.

Irizpideei esker, esperientzia nabarmenenak identifikatu ahal izan diren arren, behin betiko hautapena entitateen aniztasuna kontuan hartuta egin da, garatzeko aukera gehiago ager daitezten.

Azkenik, hautatutako praktika horien artean EAEn aurrera eramaten ari direnak ere aurki daitezke. Modu horretara, gure inguruan buru osasun arazoak dituzten pertsonekin jarduten duten entitate eta pertsonen ekarpena aitortu nahi izan da.

<sup>4</sup> Hasieran, 11 ziren hautatutako praktika ilustratiboak, baina, azkenean ezin izan da AFAEPS Albaceteko formakuntza programaren informazioa jaso; buru osasun arazoak dituzten pertsonen formazio eta kualifikazioko atalean sailkatutakoa.

Horrez gain, beste autonomia erkidegoen adibideak ere ikus daitezke, ikasketa horiek gurera ekarrita praktika berriak sortu daitezkeelako edo dagoeneko martxan diren ideia edo programa propioen gaineko hausnarketa bultzatu. Horrenbestez, helburua da praktika horiek berak eta horien testuingurua ezagutzea, eta aurrera eramateko aukera baldin badago, gure errealitate edo eremura moldatzea.

## 1 IRUDIA: NABARMENDUTAKO PRAKTIKA EGOKIAK GIZARATERATZE ETA LANERATZEAN



## *Buru osasunean nabarmendutako praktikak: enplegurako formakuntza eta kualifikazioa*

### **1.PRAKTIKA-FORMAKUNTZA ETA LAN GAITASUNA BURU OSASUN ARAZOAK DITUZTEN PERTSONEN NORBANAKO ARRETAN**



## **1. ENTITATEAREN ETA ESPERIENTZIAREN OINARRIZKO DATUAK**

### **Entitatearen izena**

Gaztela Leongo buru osasun federazioa (FEAFES Castilla y León).

### **Entitatearen kokapena** (egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu)

Tokian tokiko proiektua Gaztela Leongo Erkidegoan – Egoitzaren herria Valladolid.

### **Entitate mota** (Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...)

Hirugarren Sektoreko erakundea, zehazki, buru osasun arazoak dituzten pertsonekin lan egiten duena.

### **Erakundearen ekintza arloak** (Dependentzia-helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...)

Desgaitasuna eta Bazterkeria.

### **Entitatearen tamaina** (Ordainpeko pertsonen kopurua...)

Bederatzi pertsona.

### **Esperientziaren izena: TITULUA** (Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...)

Buru osasun arazoak dituzten pertsonak laguntza-pertsonalean prestatu eta trebatzea (enplegu-sorguneak).

### **Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA** (azaldu 10 lerrotan gehienez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...)

Proiektu honen bidez helburua da osasun arazoak dituzten pertsonak modu autonomoan bizitzeko duten eskubidea bermatzea, laguntzaile-pertsonalaren

ereduaren bidez.

Norberaren autonomia bi alderditatik ahalbidetzen du:

- Batetik, laguntza-pertsonalaren materialen, buru osasun arazoak dituzten pertsonekin formakuntza eta trebakuntza teoriko-praktiko zehatza aurrera eramatea Gaztela Leongo lurraldean. **“Berdinen arteko babesa”** sustatu nahi da, kolektiboarentzako enplegu-sorguneak ahalbidetuz, lan profesionala aurrera eramanez, eta, era berean, pertsona horien errekuperazioan lagunduz.
- Bestetik, zerbitzuaren onuradunek, buru osasun arazoak dituzten pertsonak, euren bizitzaren agintea hartzea, dependentziazatik autonomiara.

Horretarako, 2017ko apiriletik irailera bitartean, buru osasun arazoak dituzten 150 lagunek jasoko dute prestakuntza Gaztela eta Leonen, Federazioa osatzen duten 11 entitateen eskutik. Proiektu hori bultzatzeaz gain, Federazioak formakuntzaren, laguntzaile-pertsonalen laneratzeen eta zerbitzuaren erabiltzaile kopuruaren jarraipena egingo du, baita babestu eta koordinatu ere.

Proiektu berritzailea da, buru osasunean espezializatutakoa eta anbizioduna. Red Apoyok babestu eta koordinatuko du, eta enplegarritasunerako eta norbera leheneratu ahal izateko erronka berria izango da.

**Kontaktuaren datuak** (norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...)

**Harremanetarako pertsona:** Ángel Lozano de las Morenas (FEAFES Castilla y Leongo kudeatzailea).

**Helbidea:** Plaza Marcos Fernández, 2 Bulegoa F.47014 Valladolid

**Telefonoa:** 983 30 15 09

Emaila: [info@saludmentalcyll.org](mailto:info@saludmentalcyll.org)

**Informazio gehiago:**



[www.saludmentalcyll.org](http://www.saludmentalcyll.org)



<https://es-es.facebook.com/Federaci%C3%B3n-Salud-Mental-Castilla-y-Le%C3%B3n-142192422557586/>



<https://twitter.com/saludmentalcyll?lang=es>



<https://www.youtube.com/user/FEAFESCYL>

## 2. ESPERIENTZIAREN DESKRIKAPENA

**ERRONKA edo gainditu nahi den desafioa** (dimentsioren batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...)

Honakoak dira proiektuaren erronkak:

- Buru osasun arazoak dituzten pertsonentzako laguntza-pertsonaleko zerbitzua gainontzeko autonomia erkidegoetara eramatea, eta horrekin batera, baita laguntzaileak eta zerbitzuaren erabiltzaileak ere.
- Bizitza independentea eta autonomia sustatzea laguntzaile-pertsonalaren eredu berriaren laguntzaz.
- Enplegu-sorgune berriak sortzea buru osasun arazoak dituzten pertsonentzat.
- Pertsonen bizitza proiektuaren arabera lan egitea, eta norbanakoan zentratutako arreta eskaintzea.
- Laguntza-pertsonalean eta bizitza independentean ahalik eta pertsona gehien formatzea herrialde mailan.
- Buru osasun arazoak dituzten pertsonen arretarako arlo guztiak (pertsonalak, sozialak eta laboralak) koordinatuko dituen sare baten sorreran pausoak ematea.

**Partaideak eta rola** (nortzuk parte hartzen duten eta zein den kolektibo bakoitzaren rola...)

- Federazioko talde teknikoa: proiektuaren sortzaile eta koordinatzaileak, formakuntza antolatzaileak eta lurralde mailan emaitzen azterketa egingo dutenak, oro har.
- "Formatzaileei formakuntza": Buru osasun eta laguntza-pertsonalean materia emango duten profesional edota kanpoko kolaboratzaileak.
- Gure entitateetako profesionalak, formatzaile zuzen gisa, eta egitasmoaren tokian tokiko jarraipena egitea nahiz Federazioaren solaskide gisa aritzea.
- Buru osasun arazoak dituzten pertsonak, beste pertsonen laguntzaile-pertsonal bezala "berdinen arteko babesa".
- Buru osasun arazoak dituzten pertsonak, laguntza-pertsonaleko zerbitzuaren erabiltzaile gisa.

**Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak** (esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, besteren bat ere konprometitu bada bakarrik...)

Federazioak bultzatzen du proiektua, eta hura osatzen duten 11 entitateen bermea du

baliabideak kudeatu eta horiek martxan jartzea sustatzen duten heinean. Horrez gain, Repsol fundazioa eta La Caixaren gizarte ekintzaren laguntza ere badute. Proiektuari babesa eman diote haren berritasunarengatik, eta Gizarte Zerbitzuen Gerentziak (Gazte Leongo Junta) lagunduta dago.

### **Nola sortu da, testuingurua**

Gaztela Leongo Buru Osasun Federazioak buru osasun arazoak dituzten pertsonen autonomiaren eta bizitza independentearen aldeko apustua egin du. Horretarako, baliabide berriak bilatu nahi ditu bai ikuspegi sozialetik baita lan ikuspegitik ere, eta laguntzaren estaldura zabaldu.

Laguntza-pertsonal zerbitzua Gaztela Leongo Juntaren gizarte zerbitzuen katalogoan jasota dago, SAADen abenduaren 14ko 39/2006 Legean, baita Familia eta Aukera Berdintasuneko Kontseilaritzaren promozioan ere. Bertan zerbitzu profesionalak desgaitasuna duten pertsonen gizarte eta lan integrazioa sustatzeko tresna izateko lanean ari dira, baita enplegu-sorgune berriak bilatzen ere Red Apoyoren erronka gisa. Faktore horiek guztiak beharrezkoak izan dira apustuari eutsi eta inizatiba bideragarri egiteko.

### **Helburuak**

Programarekin lortu nahi diren helburuak honakoak dira:

- Desgaitasuna duten pertsonak formatzea, batik bat buru osasun arazoak dituztenak, laguntza-pertsonalean.
- “Berdinen arteko babesa”-ren eredia sustatzea.
- Enplegu-sorgune berriak sortzea buru osasun arazoak dituzten pertsonentzat, laguntzaile-pertsonal gisa.
- Buru osasun arazoak dituzten pertsonen autonomia eta bizitza independentea bultzatzea.
- Buru osasun arazoak dituzten edota dependentzia egoeran daudenei irtenbide malguak, pertsonalizatuak eta pertsonen behar zehatzetara egokitutakoak eskaintzea.
- Herrialde mailako sare bat sortzea buru osasun arazoak dituzten pertsonentzako laguntza koordinatzeko.

### **Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna**

Aurrera eramandako jarduerak:

- Proiektuaren lanketa eta diseinua.
- Bideragarritasun plana.
- Laguntza-pertsonalean eta bizitza independentean formatzaileak formatzea: Gaztela Leongo Buru Osasun Sarea osatzen duten 11 entitateko teknikariei

zuzendutakoa.

- Buru osasun arazoak dituzten pertsonak zuzenean formatzea laguntza-pertsonalean, etorkizunean eurak laguntzaile-pertsonalak izan daitezzen.
- “Berdinen arteko babesaren eredu” bultzatzeko jarduerak abian jartzea.
- Laguntzaile-pertsonalen lan eta formazio praktikak martxan jartzea eguneroko lana buru osasun arazoak dituzten pertsonengana eramateko.
- Herrialde mailan aurrera eramandako formakuntzei jarraipena egitea.
- Emaizten eta erabiltzaileen asebetetze mailaren analisia.
- Arlo horretako laneratzeen eta zerbitzuaren erabiltzaileen bilketa eta ikerketa.
- Laguntzaile-pertsonalaren figura garatu eta osatzearen alde lan egiten jarraitzea.
- Enplegu-sorguneetan aliantzak eta babesak bilatzea zerbitzu horri bultzada emateko.
- Tokian tokiko koordinazioa lan arloan, Federazioak martxan jarritako Red Apoyoren bidez.

### Aurrera eramaten den espazioa edo tokia

Valladolideko CEFRES Formakuntza eta Ikasketa Zentroa izango da abiapuntua (Gaztela Leongo Juntarena da). Laguntza-pertsonalean eta bizitza independentean formatuko diren formatzaileen ikasketa zentro izango da, gure entitateetako profesionaleri zuzendutakoa.

Buru osasun arazoak dituzten pertsonentzako gainontzeko formakuntza saioak, etorkizuneko laguntzaile-pertsonalak prestatuko dituztenak, Gaztela Leongo Buru Osasun Sarearen entitateetan egingo dira edo horretarako aukeratutako ikasketa zentroetan.

Praktikak gure entitateen laguntza-pertsonaleko zerbitzuetan bertan egingo dira, eta zerbitzuaren erabiltzaileek erabakiko dute zein izango den horiek aurrera eramateko tokia: norberaren bizilekua, toki-komunitarioak eta aisia egoeraren arabera hainbat herri ere izan daitezke.

Proiektuaren azterketa eta jarraipena Federazioaren instalazioetan bertan egingo da eta gainontzeko entitateetan ere behatuko dituzte zuzenean. Horrela, jasotako emaitzak ebaluatuko dituzte.

Azkenik, erregelatutako lana egun martxan diren zerbitzuak zabaltzeko izango da, baita laguntza bera zabaltzeko ere entitateetara erabiltzaile berriak erakarriz edo laguntza pertsonaleko zerbitzua aurrera eramaten duen beste enpresa edota gizarte entitateetara hedatuz. Lanerako toki fisikoa erabiltzailearen behararen arabera izango da.



**Ebaluazio sistema (nola eta noiz ebaluatzen da...)**

Proiektuaren jarraipena eta ebaluaketa hainbat adierazle kontuan hartuta egingo da, honako tresna hauek erabiliz: gauzatutako jardueren ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa (asebetetze galdetegia, behatuz egindako ebaluazio zuzena, ezagutzen ebaluazioa eta beste zenbait erregistro).

Ebaluaketa jarraitua egingo da proiektua gauzatzen den bitartean, eta, bukaeran, azken ebaluaketa (prestakuntza jarduera bakoitza amaitzean eta proiektua bera bukatutakoan batera egindako azken ebaluaketa egingo da).

Azkenik, lurraldean jasotako datuen bidez, laneratze guztiak kontatuko dira, baita zerbitzuaren erabiltzaile guztiak ere.

**Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak (noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...)**

Proiektu hori 2016. urte hasieran jarri zen martxan. Hasteko, barne-lana egin zen, sortu, antolatu, garatu eta haren bideragarritasuna ikusteko. Ondoren, proiektua gauzatu edo martxan jartzeko faseari ekin zitzaion 2017ko martxoa eta abendua bitartean. Honela banatu zuten:

**Martxoa – apirila:** formatzaileen formakuntza.

**Apirila-iraila:** buru osasun arazoak dituzten pertsonen formakuntza teoriko-praktikoa.

**Iraila–abendua:** Ibilbide pertsonalizatuak, enplegu-sorgune berriak, eta, horrenbestez, zerbitzuaren erabiltzaile gehiago.

**Azken ebaluaketa:** gauzatutako prestakuntzen kopurua, erabiltzaile kopurua, egindako praktiken kopurua, lan-kontratazio kopurua eta laguntza-pertsonaleko zerbitzuko erabiltzaile kopurua, besteak beste.

Etorkizunera begira, buru osasun arazoak dituzten pertsonen formakuntza zabaldu eta laguntzaile-pertsonalen lanpostu berriak sortzea da asmoa. Horrez gain, bitzta independente eta askearen alde lanean jarraitzea, landa inguruan zerbitzua sustatzea (baliabide errentagarri eta malgu bezala), gizarteratze eta laneratzea sustatzea eta Gaztela Leongo Buru Osasun Sareko entitateekin lankidetzan eta koordinatuta lan egiten jarraitzea dira beste helburuetako batzuk. Horiek guztiak finkatu dituzte buru osasun arazoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko. Eta, noski, erronka eta desafio berriak sortzearekin batera aurrera egiten jarraitu nahi dute.

**Emaitza nabarmenenak (helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea...)**

- Proiektuak oso harrera ona eta inplikazioa jaso du Gaztela Leongo Buru Osasun Sarea osatzen duten 11 entitateen aldetik.

- Orain arte formatutako buru osasun arazoak dituzten pertsonak laguntza-pertsonalaren zerbitzuarekiko interes handia agertu dute, eta, ondorioz, parte-hartzea ona izan da.
- “Berdinen arteko babes ereduaren alde” eginiko apustuak iritzi positiboak jaso ditu.
- Formakuntza jaso duten pertsonak positiboki aloratu dituzte etorkizuneko laguntzaile-pertsonal bezala.
- Lan poltsa bat osatu da formakuntza osatu duten pertsona guztiakin.
- Gaur gaurkoz 2017/06/10: 30 erabiltzailek bukatu dute lan teorikoa eta praktikoa. 91 ari dira, berriz, formakuntza jasotzen. Gainontzekoek, uztailetik irailera, oraindik ez dute data finkatu.

**Erreplikatzeko aholkuak** (norbaitek horrelako ekimen bat martxan jarri nahiko balu zein aholku emango litzaioke...)

Buru osasun arazoak dituzten pertsonen bizitza proiektuetan sinestea, eta pertsona helburu duten ereduaren arabera lan egitea. Beraiek izango dira erabakiak hartu eta bere bizitzaren agintea hartuko dutenak bakoitzak bere interes, asmo eta ilusioak kontuan hartuta.

Babes ereduaren giza-tresna bat izatea, autonomia eta norberaren garapena sustatzeko prozesua babestuko duena. Horrez gain, berdinetik berdineraren babesa ematea norberak ezagututakoa eta bizitutakoa aintzat hartuta.

### Bestelako informazioa

Informazio gehiago Federazioaren Enplegu eta Programa arloan.

## 2 PRAKTIKA.- INCLÚYETE PROGRAMA



### 1. ESPERIENTZIAREN ETA ENTITATEAREN OINARRIZKO DATUAK

#### Entitatearen izena

Almeriako Unibertsitateko Psikologia, Osasuna eta Heziketa (HUM-760) ikerketa taldea.

#### Entitatearen kokapena (egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu)

Almeria

**Entitate mota** (Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...)

Unibertsitatea eta Hirugarren Sektoreko Erakundeak

**Erakundearen ekintza arloak** (Dependentzia-helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...)

Buru Osasuna / Hezkuntza

**Esperientziaren izena: TITULUA** (Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...)

Inclúyete: Grupo de Conocimiento Mutuo.

**Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA** (azaldu 10 lerrotan gehienez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...)

Prestakuntza programa Almeriako Unibertsitatean eramaten da aurrera, unibertsitateko ikasleen, buru osasun arazoak dituzten pertsonen eta profesionalen talde eskoletan. Lan eta norberaren ongizatearekin lotura daukaten ikastaroen bidez, oinarrizko ezagutza lortzea da xedea. Orain arte, hiru gauzatu dira: (1) Web Garatzaile ikastaroa, (2) Buru osasuneko kirol teknikaria eta (3) Lorezaintza eta Nekazaritza.

**Kontaktuaren datuak** (norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...)

**Harremanetarako pertsona:** Adolfo Javier Cangas Díaz  
**Helbidea:** Ctra. Sacramento, z/g, 04120 La Cañada, Almeria  
**Telefonoa:** 950489490 / 628842650  
**Emaila:** ajcangas@ual.es

**Informazio gehiago:**



<https://www.facebook.com/incluyete.ual/>



<https://www.facebook.com/groups/1345183442231781/>

## 2. ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA

**ERRONKA edo gainditu nahi den desafiaoa** (dimentsioren batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...)

Buru osasunaren erabiltzaileak prestakuntzara erakartzea inguru inklusibo batean, eta unibertsitate ingurua hala da. Modu horretara, kolektibo horrek gainean eramaten duen estigma murriztea da helburua, eta, bide batez, erabiltzaileen autoestimua hobetzea.

**Partaideak eta rola** (nortzuk parte hartzen duten eta zein den kolektibo bakoitzaren rola...)

- Buru nahasmendu larria daukaten pertsonak
- Unibertsitateko ikasleak

### **Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak (esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, besteren bat ere konprometitu bada bakarrik...)**

- Buru Osasun Arazoak dituzten Pertsonen Gizarteratzeko Andaluziako Fundazio Publikoa (FAISEM).
- El Timón Buru Gaixotasuna duten pertsonen Familia eta Ahaideen Elkarte.
- Andaluzia Ekialdeko Bipolarren Elkarte (BAO).
- Un Paso Adelante elkarte (AUPA).
- Almeriako Buru Osasun elkarte (ASMAL).
- Almeriako Torrecardenaseko Ospitaleko Kudeaketa Klinikoko Unitatea.

### **Nola sortu da, testuingurua**

Proiektua Almeriako Unibertsitateko ikertzaile talde baten eta Almeriako probintziako elkarte eta osasun sarearen arteko elkarlanaren emaitza izan da. Batik bat buru gaixotasun larrien estigma murrizteko neurriak hartzeko eta unibertsitateko ikasleak buru gaixotasun larri baten benetako errealitatera hurbiltzeko lanean ari dira. Modu horretara, kolektibo horrenganako estigma murriztu nahi dute. Horrez gain, unibertsitateak formakuntza arloan probintziako pertsona guztiei eskaintzeko dituen bitartekoak baliatu dituzte. Horrela, interesdunek programa horietan parte har dezakete aurretik ikasketarik eduki ez arren, eta unibertsitateak eskaintzen duen giro estimulatzaile eta integratzailean.

### **Helburuak**

Buru nahasmendu larrien gaineko estigma murrizteko neurriak lantzea eta unibertsitateko ikasleak benetan buru nahasmendu larri bat zer den ezagutzea, horrela kolektibo horrek normalean eramaten duen estigma murrizten saiatuz. Horrez gain, buru osasunaren erabiltzaileen ahalduntzea eta gizarteratzea sustatu nahi dute formakuntza esperientzien bidez.

### **Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna**

Formakuntza programak eskola egutegia jarraitzen du. Eskolak astean behin edo bitan izaten dira (ikasturtea eta eskola teoriko zein praktikoen arabera), ikasturteko 50 ordukoak batez beste. Orain arte, hiru ikastaro gauzatu dira: Web Garatzailea, Buru Osasuneko Kirol Teknikaria eta Lorezaintza eta Nekazaritza. 2017/2018 ikasturterako esperientzia horri beste ikastaro batzuk batuko zaizkiola aurreikusita dago; horretarako Gizarte-Lan Fakultatearekin elkarlanean aritu dira, eta ikasgela bat eskaini du esperientzia aurrera eramateko. Datorren ikasturteari begira, ingeles, historia eta arkeologia ikastaroak antolatzen ari gara une honetan (arkeologia-museoa oso gertu daukagula baliatuz) eta beste bat ikus-entzunezko euskarri buruzkoa (argazkilaritza, bideogintza eta literatura tailerrak).

**Aurrera eramaten den espazioa edo tokia**

Gizarte-Lan Fakultatea (Almeriako Unibertsitatea).

**Ebaluazio sistema (nola eta noiz ebaluatzen da...)**

Asebetetze inkesta.

**Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak (noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...)**

2015/16 ikasturtean jarri zen martxan esperientzia Web Garatzaile ikastaroarekin. 2016/17 ikastaroan Buru Osasuneko Kirol Teknikaria eta Lorezaintza eta Nekazaritza egin ziren, eta 2017/18 ikasturterako aurrez aipatutako hirurak aurrera ateratzeko asmoa dago.

**Emaitza nabarmenenak (helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea...)**

Espainiako unibertsitateetan martxan jarritako esperientzia aitzindaria da, eta beste unibertsitate campusetan aplikatzeko eredugarri izan daitekeela uste dugu.

Horrez gain, probintzia mailan buru gaixotasun larrien gaiari heltzeko unibertsitate eta elkarte sarearen arteko harremanak indartzeko bide bat izan daiteke, eta oso garrantzitsutzat jotzen dugu unibertsitate eta gizartearen arteko elkarlana sustatzea.

Asebetetze inkesta bat egin dugu, eta parte hartu duten pertsonen asebetetze maila 8 puntutik gorakoa izan da ikastaro guztietan (10eko eskalan). Hobekien baloratzen dutena ikasleen, erabiltzaileen eta profesionalen parte hartzea izan da; baita giro ona eta partaideen erritmora egokitu izana ere.

Datozen jardunaldietara begira, hobekuntzak egingo dituzte. Batetik, garraioa eskainiko dute, urrunetik datozen pertsoneri gauzak errazteko; eta, bestetik, aurretik idatzizko materiala edo eskemak prestatuko dituzte eskolen jarraipena egin ahal izateko.

**BERRITASUNAK ETA NABARMENTZEKO ALDERDIAK**

Ekimen honen bidez, unibertsitateko ikasle eta buru osasunaren erabiltzaileen arteko elkarrekintza bultzatzen da, eta estigmarekin gutxi lotzen den inguruan, gainera, unibertsitate campusean. Zentzu horretan, buru osasunaren erabiltzaileentzat nahiz ikasleentzat beraientzat ere mesedegarria izan daitekeela uste dugu; lehenengoek gehiago ikasteaz gain, ahalduntzeko modu bat delako; eta bigarrenentzat kolektibo hori ezagutzeko aukera bat delako elkarlanaren bidez, aurrez aurre, eta horri buruz dagoen ikuspegi tradizioaletik aldentuta.

Unibertsitatea hainbat osasun elkarte eta entitateak elkartzeko tokia izatea ere garrantzitsua da, eta benetan probintziako elkarte sarea integratu eta formatzeko eragile izan daiteke.

**Erreplikatzeko aholkuak** (norbaitek horrelako ekimen bat martxan jarri nahiko balu zein aholku emango litzaioke...)

Espainiako unibertsitateetan martxan jarritako esperientzia aitzindaria da, eta beste unibertsitate campusetan aplikatzeko eredugarri izan daitekeela uste dugu. Buru osasunaren erabiltzaileek ongi baloratu dute, baita unibertsitateko ikasleek nahiz parte hartu duten entitateetako arduradunek ere.

Horrez gain, unibertsitatean eta probintzian buru nahasmendu larriekin lan egiten duten elkarre-sarearen arteko harremana indartzeko modu bat izan daiteke, eta oso garrantzitsutzat jotzen dugu unibertsitatearen eta gizartearen arteko elkarlana aurrera eramatea.

### Bestelako informazioa

Proiektuaren blog bat daukagu, eta informazio berria eransten joaten gara:



<https://incluyetegcm.wordpress.com/>

## *Buru osasunean nabarmendutako praktikak: enplegurako lan bitartekotza*

### 3. PRAKTIKA-JUNTOS SOMOS CAPACES



FUNDACIÓN MAPFRE

## 1. ENTITATEAREN ETA ESPERIENTZIAREN OINARRIZKO DATUAK

### Entitatearen izena

MAPFRE fundazioa.

### Entitatearen kokapena (egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu)

Madril.

### Entitate mota (Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...)

Hirugarren Sektoreko Erakundea – Fundazioa.

**Erakundearen ekintza arloak** (Dependentzia-helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...)

Gizarte Ekintza, Kultura, Osasun Sustapena, Prebentzioa eta Bide Segurtasuna eta Asegurua eta Gizarte-Aurreikuspena.

**Entitatearen tamaina** (Ordainpeko pertsonen kopurua...)

**Esperientziaren izena: TITULUA** (Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...)

Juntos Somos Capaces programa.

**Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA** (azaldu 10 lerrotan gehienez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...)

Juntos Somos Capaces MAPFRE fundazioaren enplegu programa da, eta adimen desgaitasuna eta buru gaixotasuna duten pertsonen laneratzea sustatzen du. Horretarako, enpresen eta gizarte arloko entitateen arteko harremanari bultzada ematen dio ikuspegi berritzaile batetik, enpresa bera gizartearen eraldaketaren sustatzaile izan dadin, berdintasunaren eta gizarte kohesioaren ikuspuntutik.

**Kontaktuaren datuak** (norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...)

**Harremanetarako pertsona:** Débora Montaner Lanuza

**Helbidea:**

**Telefonoa:** 629 704521

**Emaila:** [deboramontaner@3p.fundacionmapfre.org](mailto:deboramontaner@3p.fundacionmapfre.org)

**Informazio gehiago:**



[www.juntosomoscapes.org](http://www.juntosomoscapes.org)

<https://twitter.com/juntoscapaces>

## 2. ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA

**ERRONKA edo gainditu nahi den desafioa** (dimentsioen batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...)

Gizartearen garapena eta aurrerapenean pausoak ematea, kolektibo babesgabeen bizi-baldintzak zuzenean edo zeharka hobetzeko enpresa baliabideak eskainiz. Kolektibo horien artean daude, hala nola, adimen desgaitasuna duten pertsonak eta buru osasun arazoak dituztenak.

### **Partaideak eta rola** (nortzuk parte hartzen duten eta zein den kolektibo bakoitzaren rola...)

MAPFRE fundazioa programaren sustatzaile eta finantzatzailea. Tokiko kudeatzaileak.

### **Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak** (esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, besteren bat ere konprometitu bada bakarrik...)

Enpresak, Gizarte-Erakundeak, Patronalak eta Administrazio Publikoak (aliantzak).

### **Nola sortu da, testuingurua**

2006an, MAPFRE fundazioaren Gizarte Ekintza Arloa sortu zen gizartearen garapena eta aurrerapenari bultzada emateko asmoz. Horren bidez, MAPFREk zerbitzua eskaintzen duen herrialdeetan babesgabetasun egoeran dauden pertsona eta kolektiboen bizi-baldintzak zuzenean edo zeharka hobetzeko enpresa bitartekoak jarri nahi ditu. 2010ean, Gizarte Ekintza Arloak Juntos Somos Capaces proiektua jarri zuen martxan. Horren helburua adimen-desgaitasuna eta buru gaixotasuna duten pertsonak lan munduan txertatzea da, hauek jasaten duten diskriminazio eta desberdintasunari aurre egiteko. Programa hori hainbat Autonomia Erkidegoetan txertatzen joan da, eta, egun, Espainia osoan dago martxan.

### **Helburuak**

Espainian adimen desgaitasuna eta buru gaixotasunak dituzten pertsonen gizarteratze eta laneratzea ahalbidetzea, enpresetan "Babestutako enplegua" metodologia txertatzea baliatuz.

### **Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna**

Juntos Somos Capaces ezarriko den lurraldeetan proiektua zuzen gauzatu dadin, gune horietan desgaitasuna eta enpresa aztergai dituen merkatu-ikerketak bat egiten da aurretik. Ikerketa gauzatzeko, enpresetan inkestak egiten dira, oro har, desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke aukeren gainean, eta, zehazki, adimen desgaitasuna eta buru gaixotasuna duten pertsonen kontratazioari buruz galdetuz. Enpresek arlo horretan dituzten abantailak ere lantzen dituzte.

Oro har:

- Enpresak sentsibilizatzeko jardunaldiak
- Aurkezpen ekitaldiak
- Langileak sentsibilizatzeko jardunaldiak

Adimen desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzat:

- Aurretiazko lan praktikak enpresetan
- Babestutako Enplegua
- Lanpostuaren gaineko prestakuntza

Enpresentzat:

- Lanpostuen profilen definizioa, analisia eta deskribapena



- Hautagai egokien bilaketa gizarte-erakunde eta administrazioaren laguntzarekin.
- Formakuntza neurria, enpresen beharretara egokituta.
- Langileak bere lanpostuan duen ibilbidearen jarraipena.

### **Aurrera eramaten den espazioa edo tokia**

Nazio mailan.

### **Ebaluazio sistema (nola eta noiz ebaluatzen da...)**

Lortutako emaitzak, arrakasta izan duten kasuak.

### **Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak (noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...)**

2010ean jarri zen martxan programa, eta asmoa harekin jarraitzea da.

### **Emaitza nabarmenenak (helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea ...)**

2010ean enplegu programa abian jarri zenetik 4.000 enpresa batu dira programara, eta adimen desgaitasuna eta buru gaixotasuna duten 2.500 pertsonak jaso dute formakuntza, eta 2.654 enpresa arruntetan txertatu dira.

### **Erreplikatzeko aholkuak (norbaitek horrelako ekimen bat martxan jarri nahiko balu zein aholku emango litzaioke...)**

Juntos Somos Capaces harremanetan jarri da, modu paraleloan, elkarre-erakundeekin nahiz enpresa sarearekin. Bi aldeak gure programarentzat oinarrizko zutabeak dira.

### **Bestelako informazioa**

## *Buru osasunean nabarmendutako praktikak: enpresa ekimenak*

### 4 PRAKTIKA.- LA FAGEDA



#### 1. ENTITATEAREN ETA ESPERIENTZIAREN OINARRIZKO DATUAK

**Entitatearen izena**

La Fageda.

**Entitatearen kokapena** (egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu)

Santa Pau (Girona).

**Entitate mota** (Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...)

Gizarte Ekimeneko kooperatiba.

**Erakundearen ekintza arloak** (Dependentzia-helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...)

Desgaitasun psikikoa edo Buru Nahasmendu larriak.

**Entitatearen tamaina** (Ordainpeko pertsonen kopurua...)

256 pertsona.

**Esperientziaren izena: TITULUA** (Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...)

La Fageda.

**Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA** (azaldu 10 lerrotan gehienez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...)

La Fageda irabazi-asmorik gabeko gizarte ekintza kooperatiba bat da, Kataluniakoa. Haren helburua La Garrotxa eskualdean desgaitasun psikiko edo buru nahasmendu larriak dituzten pertsonen gizarteratze eta laneratzea da. 256 lagunek osatzen dute erabiltzaile eta profesionalen artean.

Kooperatibaren produkzio jarduera batik bat nekazaritzarekin lotuta dago, eta Lanerako Zentro Berezi baten eremu administratiboan eramaten da aurrera: baso-mintegi bat, esne ekoizpenerako behi abeltegi bat, esne produktuak egiteko lantegi bat eta lorezaintza arloa.

**Kontaktuaren datuak** (norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...)

**Harremanetarako pertsona:** Cristóbal Colón (Presidentea)

**Helbidea:** Els Casals, z/g. 17811 Santa Pau (Girona)

**Telefona:** 672 681 010

**Emaila:** [fageda@fageda.com](mailto:fageda@fageda.com)

### Informazio gehiago:



[www.fageda.com](http://www.fageda.com)



<https://www.facebook.com/lafageda>



<https://twitter.com/fageda>



<https://www.youtube.com/user/LaFageda>



<https://www.instagram.com/fageda/>

## 2. ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA

**ERRONKA edo gaintitu nahi den desafioa** (dimentsioen batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...)

Adimen desgaitasuna edota buru nahasmendu larriak dituzten pertsonen gizarteratze eta laneratzea.

**Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak** (esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, bateren bat ere konprometitu bada bakarrik...)

Entitateekin aliantzak:

- **Sinergrup. Entitats amb sinergia social.** La Fageda da fundatzaileetako bat.
- **Roca Junyent.** Maila goreneko **aholkularitza juridikoa** eskaintzen du.
- **Kantar Worldpanel.** Merkatu ikerketez arduratzen da, eta **sektore mailako informazioa** ematen dizkio La Fagedari.
- **Nielsen.** Merkatuen analisisiaz arduratzen den enpresak **sektoreko eta kontsumo datuak** ematen dizkio.
- **Externalia Outsourcing Comercial.** **Komertzio Departamenduari** salmenta-puntuak eraginkor izan daitezen laguntzen dio.
- **Brand Rain.** **Komunikabide eta sare sozialetan** espezializatutako enpresak La Fageda markaren eta haren produktuen inpaktua ezagutzen laguntzen dio.
- **Colt.** Fundazioaren **txertatze proiektuak finantzatzen** ditu teknologia-enpresa horrek.
- **Mas La Carrera.** **Integraziorako kontratu bat** daukate Vall d'en Baseko enpresa horrekin.

- **Vol de Coloms.** Eskualdea eta bertako zerbitzu eta proiektuak ezagutzera emateko lankidetzak akordio bat daukate.
- **Palau de la Música. Orfeo Catala.** Mezenazgo eta lankidetzak hitzarmen bat daukate.
- **Incorpora.** “La Caixa”-ren **gizarte ekintza.** Incorpora programa eta lan merkatuan pertsonen arreta eskaintzea.
- **Bankia.** Txertatze proiektuetan babesa ematen die.
- **Momentum Project (BBVA).** Finantzazioa eskaini du lantegi berria eraikitzeko.

Horrez gain, La Fageda entitate hauetako kide da:

- **Dincat.** Katalunian adimen desgaitasuna duen kolektiboa ordezkatzeko duen erakundea da.
- **Federacio de Cooperatives Agraries de Catalunya.** Nekazaritza kooperatiba ordezkatu eta defendatzeko duen Kataluniako erakundea da.
- **Coordinadora Catalana de Fundacions.** Kataluniako fundazioen elkarte da, eta sektore guztietan 500 entitate baino gehiago ditu.
- **Visita Granges.** La Garrotxako nekazaritza-elikagaien ekoizleak.
- **AECOC.** Estatuko kontsumo handiko ekoizle eta banatzaileen elkarte.
- **Turisme Garrotxa.** Eskualdeko turismo-ekipamendu nabarmenenak biltzen dituen elkarte.
- **100%t.** Kalitatezko enpresa-turismoa bultzatzen du La Garrotxa eskualdean.
- **Cuina Volcanica.** Tokiko jatetxe eta ekoizleak sustatzen ditu, La Garrotxa Ostalaritza Elkartearen barruan.
- **El Gourmet Catala.** Ekimen horrek kalitatezko produktuak eta gertukoak sustatzen ditu, Katalunian.
- **Catalonia Gourmet.** Nazioartekotzeko ekintza eta proiektuak, markaren promozioa, berrikuntza, kontsumitzaileen gaineko ikerketak eta prestakuntza dira bere lan ildoak.

### Nola sortu da, testuingurua

80ko hamarkadaren hasieran sortu zen esperientzia pilotu gisa buru osasun arazoak zituzten pertsonak psikiatria-ospitaleetatik atera eta jasaten zuten gizarte-bazterkeria egoeratik aldentzeko. Hortik abiatuta, 1982an, La Fagedak enpresa proiektu bat martxan jarri zuen, Oloten, eskualdean adimen desgaitasuna edo buru nahasmendu larriak zituzten pertsonak gizarteratze eta laneratzeko.

### Helburuak

La Garrotxa eskualdeko adimen desgaitasuna edota buru nahasmendu larriak dituzten pertsonen bizi kalitatea hobetu eta haien gizarteratzea ahalbidetzea. Horretarako, enpresa jardura batzuk martxan jarriko dituzte zentzua duten lanpostuak sortuz eta kalitate eta bikaintasun irizpideekin kudeatzen diren laguntza zerbitzuen bidez. Elkartearentzat eta gizartearentzat baliotsua dela iritzi diote.

### Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna

#### 1. Enplegu Zentro Berezia

- Lorezaintza saila.
- Behien abeltzgia.

- Esnekien lantegia (jogurtak, postreak eta izozkiak).
- Marmelada lantegia.
- Bisitariarentzako Arreta Zerbitzua.
- Beste departamendu eta zerbitzuak: bulegoak, sukalde-jangela eta garbiketa.

## 2. Okupazio-zentroa

### **Okupazio-terapia zerbitzua (STO)**

%65 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak jasotzen ditu. Behin-behinean edo behin betirako produkzio gaitasun nahikoa ez daukatenak. Horrenbestez, okupazio-terapia eskaintzen zaie euren gizarateratzea bultzatzeko. Jardunaldiaren zati batean okupazio-terapeutikoaren barruko ekintzetan aritzen dira. Beste zatian, berriz, doikuntza pertsonalean (psikomotrizitatea, estimulazio kognitiboa, dantza...).

### **Txertatze okupazio-zerbitzua (SOI)**

Eskola formakuntza bukatu eta lanean jarduteko adina daukaten pertsonak jasotzen ditu. Lanean jarduteko produkzio gaitasuna eduki dezakete, baina ez dute heldutasun maila nahikoa lortu hori gauzatzeko. Gehienbat, laneko eginbeharrak eta ohiturak ikasi behar dituzte.

## 3. Etxebizitza zerbitzua

### **Bizilekuak**

La Garrotxa eskualdean desgaitasuna duten pertsonen kolektiboarentzako etxebizitza eskaintzen dute familia ez badute, edo izanez gero ere, euren ardura hartu ezin badute.

### **Autonomiarako Euskarria Etxebizitzan Bertan**

Desgaitasuna duten pertsonen bat etxe batean modu autonomoan bizi bada, laguntza zerbitzua eskaintzen zaio. Pertsona horiek askotariko aholkuak jasotzen dituzte: etxearen antolakuntza, intendentzia, garbiketa, erosketak, sukaldaritza...

### **Babesa duten etxeak**

Kataluniako Generalitatearen Departament de Treball, Afers Socials i Famíliesen webgunean irakur daitekeenez, hiruzpalau lagun bizi diren etxebizitza babestuak dira, eta tarteka kanpoko laguntza jasotzen dute. Oro har, jabeen komunitate batean sartutako etxebizitzak dira, eta buru osasun arazoak dituzten pertsonak jasotzen dituzte. Autonomia maila ona izaten dute, baina kanpoko laguntza behar izaten dute gizarateratzeko.

## 4. La Fagedaren Komunitatean Txertatzeko Zerbitzua (SIC)

Desgaitasun ziurtagiria duten pertsonak eta bazterkeria arriskuan dauden gazteak enpresa arruntetan laneratzeaz arduratzen da.

Zerbitzuaren erabiltzaileek nahikoa gaitasun eta autonomia izaten dute Enplegu Zentro Bereziatetik kanpo zereginak egiteko.

SICek langileen lan poltsa bat osatua du, eta La Garrotxa eskualdean dauden enpresen esku jartzen du. Kontratu horiek eginez gero, eduki ditzaketen abantailen eta onura sozial eta fiskalen berri ematen diete enpresei. Horrez gain, kontratuak egiteko prozesuan aholkularitza eta sostengua eskaintzen zaie, baita kontratu osoan zehar jarraipena eta segizioa egiteko laguntza ere. La Caixaren gizarte ekintzaren Incorpora programaren barruan dago.

Kataluniako Lanbide Zerbitzuak (SOC) baimendutako lanpostu agentzia ere bada bitartekaritza eta laneratze zerbitzua ematen duen heinean. 0900000054 zenbakia dauka.

## 5. Aisia atala

Atal honek aisia jarduerak eskaintzen dizkie La Fagedako kideei, bakarkako nahiz taldekako ekintzen bidez.

Atal horren barruan, hainbat proposamen dituzte:

- Aisia eguerdian.
- Ikastaro eta tailerrak.
- Garrotxa Atletismo Taldea.
- Irteerak eta ospakizunak.
- Bidaiak eta udalekuak.

## 6. Boluntarioritza

- Aisia ekintzak
- Kirola
- Etxebizitza
- Laguntza-zerbitzua
- Okupazio-tailerra

### **Aurrera eramaten den espazioa edo tokia**

La Garrotxa eskualdea (Girona).

### **Ebaluazio sistema (nola eta noiz ebaluatzen da...)**

Informaziorik gabe.

### **Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak (noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...)**

1982 La Fageda sortu zen

1983 Lorezaintza atala sortu zen

- 1984 Els Casals etxaldea erosi zuten
- 1985 Lehen egoitza ireki zuten
- 1993 Jogurtak ekoizten eta saltzen hasi ziren
- 1997 Egoitza zerbitzua kudeatzeko Fundazioa sortu zuten
- 1997 Esnekien aukera zabaldu zen, eta irudi berria estreinatu zuten
- 1998 Etxaldean bisitak jasotzen hasi ziren
- 2004 Fundació Sentit sortu zen
- 2006 El Caliu egoitza erabiltzen hasi ziren
- 2008 "Historia de una locura" liburua argitaratu zuten 25. urteurrena zela eta.
- 2008 Komunitatean Txertatzeko Zerbitzua (SIC) sortu zuten
- 2009 Els Cassés egoitza estreinatu zuten
- 2010 Izozkiak ekoizten eta saltzen hasi ziren
- 2012 Marmeladak ekoizten eta saltzen hasi ziren
- 2013 Instalazioak zabaltzeko lanak egin zituzten
- 2015 Bezeroen Arreta Zerbitzu berria martxan jarri zen

**Emaiza nabarmenenak** (helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea ...)

- **Gizarteratzearen ikuspegia enpresetan txertatzea**
- Kolektibo babesgabeen lan-baldintzak hobetzea.
- Garapen jasagarria. Ingurumena zein produktuaren kalitatea zaintzea.

Magnitude nagusiak (2016)

Magnitudes sozialak	
256	Langileak (Taldea guztira)
123	Desgaitasun ziurtagiria duten langileak
%85	Lan-kontratu mugagabea duten langileak
25 baino gehiago	Gorrotxako (Komunitatean gizarteratzeko zerbitzua) beste enpresetan txertatuta dauden pertsonak eta ziurtagiria dutenak
54	Pertsona zentro okupazionalen
51	Bizitoki eta etxebizitza zerbitzuetako erabiltzaileak
500.000	Pobrezia-aren aurkako entitateek jasotako jogurtak
200	Esne-produktuekin egindako babesletza-ekintzei esker onuradun izan diren entitateak.
41.000	Gure instalazioetara etortzen diren bisitariak
240	Fageda ereduaren jardunaldietako parte-hartzaileak
Magnitude ekonomikoak	
64.000.000	Jogurt edalontziak eta landutako postreak
66.000	Ekoiztutako izozki kiloak
48.000	Landutako marmelada kiloak
255	Abere-buru landetxeak
2.016.000	Kontsumitzaile (Kantar datuak)
19.800.000	Salmentak (€)
5.200.000	Inbertsioa (€)
10.000.000	Erosketak Gironako eskualdean
Ingurumeneko magnitudeak	
%11	Plastiko eta kartoi murriztapena (kg/tn ekoizpen)
%43	Produktuen ekoizpenean kontsumitutako erregaien artean gora egin du biomasa tonen erabilerak, instalazio berriei esker

## Bestelako informazioa

**Gizarte erantzukizunaren** ikuspegitik hainbat jarduera egiten ditu, hiru arlotan:

- Enpresentzako ekintzak
- Desgaitasunaren Lege Orokorra

- Ingurumena

### Gardentasuna.

Webgunean argitaratzen ditu:

- Estatutuak
- Jasangarritasun memoriak
- Kontu-ikuskaritzaren txostenak

---

## *Buru osasunean nabarmendutako praktikak: enpresa sarearen parte-hartzea*

---

### 5 PRAKTIKA.- GRUPO INDITEX-EN FOR&FROM PROGRAMA



---

### 1. ENTITATEAREN ETA ESPERIENTZIAREN OINARRIZKO DATUAK

---

#### Entitatearen izena

Inditex taldea.

#### Entitatearen kokapena (egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu)

A Coruña (Galizia).

#### Entitate mota (Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...)

Enpresa pribatua.

#### Erakundearen ekintza arloak (Dependentzia-helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...)

Besteak: ehunak.

#### Entitatearen tamaina (Ordainpeko pertsonen kopurua...)

162.000 pertsona



**Esperientziaren izena: TITULUA** (Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...)

For&From programa.

**Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA** (azaldu 10 lerrotan gehienez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...)

Desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko proiektua da for&from. Gizarte-erakundeekin elkarlanean, denda sare bat sortu dute Inditex frankiziaren ereduari jarraituz: erakunde sozial horiek pasatako denboraldietako arropa jartzen dute salgai prezio murriztuetan. Hasieran Inditexek denda egiteko dohaintza bat egin ondoren, eredu hau autojasangarria bihurtu da eta hori aurrera eramaten ari diren erakunde sozialek irabazi egonkorrak lortu dituzte produktuen salmentatik. Denda desgaitasun larria duten pertsonak kudeatzen dute, eta erosketa egiteko espazio soilak izateko inklusio, irisgarritasun eta oztopoak ezabatzeko erreferentzia zentro izatera pasatu da.

**Kontaktuaren datuak** (norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...)

**Harremanetarako pertsona:**

**Helbidea:** Inditex eraikina. Av. Diputación z/g. 15143 – Arteixo A Coruña - Espainia

**Telefonoa:** 981 185 400

**Informazio gehiago:**

- [www.inditex.com/es/sustainability/employees/for-from](http://www.inditex.com/es/sustainability/employees/for-from)
- [www.inditex.com/comprometidos-con-las-personas/apoyo-a-la-comunidad/programa-for-from](http://www.inditex.com/comprometidos-con-las-personas/apoyo-a-la-comunidad/programa-for-from)

---

## 2. ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA

---

**ERRONKA edo gainditu nahi den desafioa** (dimentsioren batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...)

For&from ereduarekin erabiltzaileek jasotako esperientziatik abiatuta, programa honen asmoa denda arruntetan txertatzea da. Ikasketarako laguntza-ekosistema ezin hobea sortzen da, desgaitasunaren arloan egiaztatutako esperientzia daukaten entitateekin elkarlanean.

**Partaideak eta rola** (nortzuk parte hartzen duten eta zein den kolektibo bakoitzaren rola...)

Inditex taldea: finantzatzen duena

Gizarte-entitateak: laguntza

Desgaitasuna duten pertsonak: Horiei zuzenduta dago programa

**Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak** (esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, besteren bat ere konprometitu bada bakarrik...)

**Nola sortu da, testuingurua**

Programaren abiapuntua negozio ereduarekin lotutako irtenbide berritzaile eta jasangarriak bilatzea da, ondoren, komunitatean eragin ekonomiko eta sozialak utziko dituen.

**Helburuak**

**Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna**


Gaur egun, programak 11 denda ditu Espainian, gizarte-ekonomian jarduten duten lau entitatearekin elkarlanean –Fundación Molí d'en Puigvert, Confederación Galega de Persoas con Discapacidade, Alacant eta Moltacteko buru desgaitasuna duten pertsonen aldeko elkarte—. Horri esker, desgaitasuna duten 144 lagunek enplegu egonkorra daukate.

**Aurrera eramaten den espazioa edo tokia**

Espainiako hainbat hiritan.

**Ebaluazio sistema** (nola eta noiz ebaluatzen da...)

**Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak** (noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...)



**Emaitza nabarmenenak** (helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea ...)

Denda hauen ekonomia emaitzak (frankizia bezala jarduten dute) taldearen barruko beste dendekin aldera daitezke. Beraz, establezimendu horiek kudeatzen dituzten entitateentzat finantzazio iturri oso garrantzitsuak dira.

Adibide bat: 2016ko apirilean, Massimo Duttik “for&from” denda berri bat ireki zuen Igualedan (Bartzelona) Moltacte irabazi-asmorik gabeko entitatearekin elkarlanean.

Langileek buru gaixotasunen bat diagnostikatuta dute, eta **formakuntza nahiz babes psikologiko eta profesionala jasotzen dute Moltacteko psikologo eta teknikari-profesionalen eskutik. Eragile gehiagoren babesa ere badaukate: Taller Auria Moltacteren bazkidea zein Massimo Duttiko talde komertziala.**

**Erreplikatzeko aholkuak** (norbaitek horrelako ekimen bat martxan jarri nahiko balu zein aholku emango litzaioke...)

## Bestelako informazioa

*Buru osasunean nabarmendutako praktikak:  
gizarteratze eta laneratzearen esku-hartze  
integrala*

## 6.PRAKTIKA- ASAFESEN ENPLEGU ZERBITZU INTEGRALA



### 1. ENTITATEAREN ETA ESPERIENTZIAREN OINARRIZKO DATUAK

#### Entitatearen izena

ASAFESen ENPLEGU ZERBITZU INTEGRALA da praktikaren izena, eta bertan parte hartzen dute ASAFES (Arabako Buru Gaixotasuna duten pertsonen eta familien elkarte) eta RAEPek, ASAFESetik sortutako EZB Enplegu Zentro Bereziak.

#### Entitatearen kokapena (egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu)

Vitoria-Gasteiz (Araba).

#### Entitate mota (Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...)

ASAFES Hirugarren Sektoreko elkarte da, eta RAEP enpresa bat, EZB.

#### Erakundearen ekintza arloak (Dependentzia-helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...)

Buru osasuna.

**Entitatearen tamaina** (Ordainpeko pertsonen kopurua...)

ASAFESek: 28 pertsona eta RAEPek: 65 pertsona.

**Esperientziaren izena: TITULUA** (Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...)

ASAFESen Enplegu Zerbitzua Integrala.

**Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA** (azaldu 10 lerrotan gehienez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...)

Zerbitzuak buru osasun arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko prozesuaren zirkuitu osoa eskaintzen du modu integralean. Horretarako, hiru elementu hartzen dira kontuan: nekazaritza arloko okupazio-zerbitzuan gaitasun eta kompetentziak eskuratzea, RAEP EZBK babestutako eremuan kontratatzea (askotariko ekintzak egiten dituzte: lorezaintza, manipulazioa, kalitate kontrola, garbiketa, prentsa-salmenta, logistika-babesa eta atezaintza), eta, azkenik, inguru normalizatuetan txertatzea.

PILA programak (Babestutako Laneratze Programa) babestutako enpleguaren metodologia erabiltzen du, normalizatutako lan eskaintzak kolektibora egokituz eta horien bitartekari gisa jardunez.

Era berean, formakuntza, berrikuntza eta koordinatuko lana eta sarean egindakoa zerbitzuaren metodologiaren zutabeak dira.

**Kontaktuaren datuak** (norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...)

**Harremanetarako pertsona:** Endika Minguela. RAEPen arduraduna

**Helbidea:** Portal de Gamarra 36, 20 pabilioia

**Telefonoa:** 945 771 501

**Emaila:** raep@asafes.org

**Informazio gehiago:**

[www.asafes.org](http://www.asafes.org)



[www.raep.es](http://www.raep.es)



<https://www.facebook.com/asafes.org?ref=hl>

**2. ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA****ERRONKA edo gainditu nahi den desafioa** (dimentsioen batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...)

Kolektiboaren estigmari eta jarduera tasa baxuari aurre egitea. Laneratzea, inklusioa eta sentsibilizazioaren alde lan egiten duen ekintza bat da.

### **Partaideak eta rola** (nortzuk parte hartzen duten eta zein den kolektibo bakoitzaren rola...)

EZBko langileak, PILA enplegu programa, eta, oro har, egitasmoa babesten duen elkarrearen barruko gainontzeko egitura osoa. Zerbitzuari bitartekoak emateko elkarrearen gainontzeko arloak baliatzen dituzte (boluntariora, tailerrak, zerbitzu juridikoa...).

### **Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak** (esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, besteren bat ere konprometitu bada bakarrik...)

Erakunde publiko nahiz pribatuen bermea dauka esperientziak: Arabako Foru Aldundia, Lanbide eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ongizate Saila, nagusiki. Erabiltzaile guztiak Osakidetzako Osasun Zerbitzuek bideratutakoak dira (Buru Osasun Zentroak).

Beste erakunde hauek ere parte hartzen dute proiektuan: Geroa Babes Fundazioa eta Mapfre Fundazioa. Azken horrek txertatze-programa sostengatzen du.

### **Nola sortu da, testuingurua**

Hasiera batean, elkartea sortu zen, premiazko beharrak asetzen hasteko. Lana beti izan da kolektiboaren eskaera nagusienetako bat, desgaitasunaren barruan langabezia-tasa handiena duelako, eta, oro har, biztanleriaren artean. Beraz, enplegu-katearen katebegi ahulena dela esan daiteke. Hori kontuan hartuta, 1992an EZBa sortu zen, garbiketa eta prentsa-salmentarekin. 1999an, berriz, PILA programa jarri zen martxan, Europa iparraldean arrakasta zuen proiektu batean oinarrituta, eta aldundiak babestuta. Programa horren xedea enpresa normalizatuan laneratzea sustatzea da.

Une horretatik aurrera, bi enplegu baliabideen artean lotura eta koordinazioa sortu zen. Ondoren, familiek egindako beste eskaera nagusietako bat falta zen, enplegu bitartekoei zentzu osoa emango ziena: lan aurreko okupazio-zerbitzua (aldundiaren zerbitzu zerrenda ere kontuan hartuta). 2015ean lortu zuten aurrera ateratzea. Hortik aurrera norbanakoaren egoerara egokitutako lan-baliabide guztiak jasoko zituen makineria jarri zen martxan. Formakuntza ere dinamika horren barruan zegoen, zeharkako-baliabide den heinean.

Hainbat erreminta erabiliko dira: lan-praktikak, sentsibilizazio jardunaldiak, azterketak...

### **Helburuak**

Ekimen honen funtsezko helburuak honako hauek dira:

- Buru osasun arazoak dituzten pertsonen lan munduan sartzeko dauzkaten zailtasunak gutxitzea.
- Kolektiboaren normalizazioa erraztea, autonomia maila handiagoa eskuratuz.

## Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna

### Okupazio-zerbitzua.

10 lagunentzako toki duen zentroa, eta ekintza nagusia nekazaritza da. ASAFESetik kudeatzen dute, eta Arabako Foru Aldundiaren barruko zerbitzua da.

### EZB

Etengabeko prestakuntza egiten dute zentro horretan, eta baita hainbat sektoretako zenbait lan egin. Kolektiboaren ezaugarriak kontuan hartzen dira. Bakarrik buru osasunarengatik desgaitasuna duten pertsonak kontratatzen dira.

Lorezaintza, garbiketa, atezaintza, prentsa-salmenta, manipulazioa eta kalitate kontrola bezalako ekintzak egiten dituzte.

### PILA

Ohiko enpleguan laneratzeko hainbat alderdi landu behar dira.

- Azterketa.
- Sentsibilizazio-ekintzak.
- Enpresa jardunaldiak.
- Erabiltzaileentzako prestakuntza. Langabezia dauden pertsonentzat izan behar du, eta jarraitua. Kolektiboaren barruko pertsona langileen sostengu diren senide eta enpresei ere zuzenduta egon behar du.
- Lan-praktikak.
- Langileei laguntza eman eta jarraipena egitea, baita lanetik kanpo daudenean ere.
- Lan ezagutza plana: filmo empleo, hitzaldiak... oso erabilgarria eta interesgarria izan daiteke enpleguaren beste arlo garrantzitsu batzuk beste formatu batean lantzea.
- Zibertxokoa sortzea: lana bilatzeko espazio honetan, teknologia baliabideak kolektiboaren beharretara egokituko dira.

Horrez gain, hiru lan baliabideen artean koordinatu eta babesten dira, eta programari atxikitako entitateekin elkarlanean lan garrantzitsua egiten dute. Halaber, enplegu eta desgaitasun foroetan ere oso aktiboki parte hartzen dute.

## Aurrera eramaten den espazioa edo toki

EZBren eta elkartearen instalazioak eta lantokiak.

## Ebaluazio sistema (nola eta noiz ebaluatzen da...)

Programan zehar egiten diren ekintza guztien etengabeko ebaluaketa egiten da. Etengabe hobetzen jarraitzeko jarrera da nagusi.

## Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak (noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...)

Zerbitzua osatzen duten baliabide guztiak hobetzea da aurrera begirako asmoetako bat. Horrez gain, Okupazio-zentroa nahiz EZBren lan arloak dibertsifikatu eta zabaldu nahi dituzte eta Babestutako Enplegu Programaren bitartekoak ugaritu.

Halaber, barne mailako baliabideen arteko malgutasuna eta koordinazioa hobetzen

jarraitu nahi dute, erabiltzaileei arreta hobea eskainiz.

**Emaitza nabarmenenak** (helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea ...)

Nahiz eta oraindik krisi ekonomikoa eta kolektiboak pairatzen dituen zailtasunak agerian egon, zerbitzuaren emaitzak positiboak dira. EZBren lan-arloak dibertsifikatuz doaz. 2016an zehar:

- 42 kontratu egin dira 21 enpresetan Babestutako Enplegu Programaren barruan.
- 26 kontratu berri 13 enpresetan.
- Urte honetan zehar 151 enpresekin jarri dira harremanetan.
- 288 laguni eskaini zaie arreta.
- Programaren erabiltzaileei bakarrik zuzendutako 424 prestakuntza-ordu kontatu dituzte.
- Lana aktiboki bilatzeko 137 zita eman dituzte Zibertxokoa.
- 102 lagunek lan egin dute RAEPen. EZBk dituen 65 lanpostu egonkorak estali ahal izan dituzte, baita behin-behinean sortutako lanpostuak ere.

**Erreplikatzeko aholkuak** (norbaitek horrelako ekimen bat martxan jarri nahiko balu zein aholku emango litzaioke...)

Buru osasun arazoak dituzten pertsonen kolektiboarekin bakarrik lan eginez gero, garrantzitsua da enplegu baliabideen arteko koordinazio egokia ezartzea, malgutasun maila altuarekin, jarrera berritzailearekin eta etengabe hobetzeko asmoz. Kolektiboak moldagarritasuna behar du.

Horrez gain, beharrezkoa da paraleloki gizarte nahiz enpresa sentsibilizazioa garatzea. Inplikaturako beste erakundeekin koordinatzea eta foroetan parte hartzea.

## Bestelako informazioa

Aurrera eramaten den lana beti erabiltzaileari zuzenduta dago. Beraiek dira laneratzeko prozesuaren protagonista bakarrak.

## 7.PRAKTIKA- FEAFES GALICIAREN PROGRAMA INTEGRATUA



**SAÚDE MENTAL  
FEAFES GALICIA**  
FEDERACIÓN DE ASOCIACIÓNS DE FAMILIARES E  
PERSOAS CON ENFERMIDADE MENTAL DE GALICIA

## 1. ENTITATEAREN ETA ESPERIENTZIAREN OINARRIZKO DATUAK

### Entitatearen izena

FEAFES Galicia.

**Entitatearen kokapena** (egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu)

Galizia – Santiago de Compostela.

**Entitate mota** (Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...)

Hirugarren sektoreko erakundea (Federazioa).

**Erakundearen ekintza arloak** (Dependentzia-helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...)

Buru osasuna.

**Entitatearen tamaina** (Ordainpeko pertsonen kopurua...)

36 pertsona.

**Esperientziaren izena: TITULUA** (Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...)

Programa Integrado de Empleo EM-Prégate

**Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA** (azaldu 10 lerrotan gehienez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...)

**EM-Prégate**-ren helburu nagusia proiektuan parte hartzen duten pertsonen laneratzea da. Egun buru gaixotasunen bat duten 60 lagunek osatua dago. Horretarako, hainbat ekintza egiten dituzte: hautagaien aukeraketa, azterketa eta balorazioa; bakarkako orientazio eta aholkularitza; lan bilaketa; eskaera egin duten pertsonen prestakuntza, enpresetako praktikak, lan bitartekaritza eta banan banakako jarraipena lantokian.

Proiektu honek hainbat berritasun ditu, lan bilaketara zuzendutako Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilpena, partaideen banan banakako ekintzen diseinu eta jarraipena programa osoan zehar, eta lana eta familia uztartzeko neurriak martxan jartzea, besteak beste.

**Kontaktuaren datuak** (norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...)

**Harremanetarako pertsona:** Carina Fernández Rivera, FEAFES Galiciaren Laneratze Zerbitzuaren Koordinatzailea

**Helbidea:** Rúa Belgrado, 1, baixo, Santiago de Compostela, 15707 A Coruña

**Telefonoa** 981 554 395 ext. 18 / 682 304 455

**Emaila:** [carina@feafesgalicia.org](mailto:carina@feafesgalicia.org) / [feafesgalicia@feafesgalicia.org](mailto:feafesgalicia@feafesgalicia.org)

**Informazio gehiago:**

<https://emplegofeafes.org>



<https://twitter.com/FeafesGalicia>



<https://www.facebook.com/feafesgalicia>

## 2. ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA

**ERRONKA edo gainditu nahi den desafia** (dimentsioren batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...)

Buru osasun arazoren batengatik desgaitasuna duten eta enplegu bila ari diren pertsonak lan munduan txertatzea.

**Partaideak eta rola** (nortzuk parte hartzen duten eta zein den kolektibo bakoitzaren rola...)

- 1.- FEAFES Galiciaren Laneratze Zerbitzua.
- 2.- FEAFES Galiciako enplegu-eskatzaille taldea.

**Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak** (esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, besteren bat ere konprometitu bada bakarrik...)

- Consellería de Economía, Empleo e Industria (Erakunde horrekin batera finantzatu dute).
- OEDEM Programa (Observatorio de Empleo de Pessoas con Enfermidade Mental).

### Nola sortu da, testuingurua

1995ean FEAFES Galiciak buru gaixotasuna duten pertsonen kolektiboaren laneratzea sustatzeko helburuarekin zenbait ekintza eta neurri hartzeko erabakia hartu zuen. 2002an OEDEM Programa martxan jarri zuten (**Observatorio de Empleo de Pessoas con Enfermidade Mental**), Galiziako Autonomia Erkidegoan aitzindaria zena.

2014an, berriz, **Programa Integrado de Empleo EM-Prégate** jarri zen martxan lehen aldiz, enplegu-bilaketa pertsonalizatu eta laneratzeko bide pertsonalizatuak gauzatzeko helburuarekin. Buru gaixotasunarengatik desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa bultzatzeko bi ekintza nagusi aurreikusi dituzte: lan bitartekaritza eta enpresetan gizarte erantzukizun plan bat aurrera eramatea.

### Helburuak

Buru gaixotasuna duten pertsonen kolektiboaren laneratzea sustatzeko ekintza eta neurriak hartzea.

### Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna

#### Jarduerak:

- Enplegua bilatzeko informazio eta orientazio ekintzak
- Laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak.
- Lanez kanpoko prestakuntza eta praktika ekintzak enpresetan.

- Lan merkatuaren azterketa.
- Lan bitartekaritza
- Enpresa-sarearen sentsibilizazioa.
- Lanpostura egokitu eta hori mantentzeko sostengua ematea.

#### Programan zehar martxan jarritako zeharkako-neurriak:

- Arreta soziofamiliarra.
- Kontziliazio neurriak.
- Aholkularitza juridikoa.
- Aisia kluba eta astialdia

#### Tailerrak:

### **1. MOTIBAZIO TAILERRA ETA BUSCA ACTIVA DE EMPLEGO (BAE) TEKNIKAK**

Tailer honen bidez honako helburu hauek lortu nahi dituzte:

- Norbera nahiz lan merkatua hobeto ezagutzea.
- Lana bilatzeko teknikak ikasi eta jarrera positiboari eustea.
- Norberari egokitutako bokaziozko orientazioa edukitzea.
- Lana bilatzeko tresnak jasotzea.

### **2. LAN GAITASUN ETA GAITASUN SOZIALEN TAILERRA**

Parte-hartzaileak trebatu nahi dituzte harremanetarako beharrezko gaitasuna izateko, ondoren, normalizatutako lan eremuan edo eremu sozialean ongi moldatzeko.

### **3. LAN BILAKETARA EGOKITUTAKO TEKNOLOGIA BERRIEN TAILERRA**

Teknologia berriek eskaintzen dizkiguten tresnak ongi menderatzea da helburua:

- Funtzionalitateak ezagutzea.
- Erabilera berriak ikertzea.
- Lan bilaketa testuinguruaren ikuspegitik begiratzea.

### **4. LAN BILAKETA KLUBA**

Aurrez aurre eta birtualki topagune bat sortzea (bloga) informazioa, esperientzia eta iritziak partekatzeko. Era berean, lan bilaketarako osagai motibatzaile izatea nahi dute, baita laneratzeko praktika egokien erakusgarri izatea ere.

### **5. EKINTZAILEEN KLUBA**

Enpresa bat sortzeko edo autonomo gisa jarduteko asmoa dutenentzat topagune bat sortzea. Ekintzailetan orientatu eta laguntzeko informazio zehatza jaso ahal izango da espazio horretan.

## 6. FAMILIEN TALDEA

Familien Taldearen helburua hauei erremintak nahiz euskarriak ematea izango da programan parte hartzen duten pertsonak lan munduan txertatu eta horiek euren lanpostuari eutsi ahal izatea errazteko.

## 7. ADIBIDE ARRAKASTATSU BATEN AZALPENA

Lanean ibili den pertsona bat bere esperientzia kontatzeko prest dago, eta aholkularitza eskaini dezake arlo hauetan:

- Lanpostu bat lortzeko zein pauso jarraitu behar diren.
- Lanpostua nola mantendu.
- Lan munduan lortu behar diren oinarrizko gaitasunak.
- Gainditu beharreko zailtasunak.

## 8. “LANGILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK” MAHAI-INGURUA

Langile bezala ditugun eskubideak nahiz enpresa baten barruko lanpostuan dauzkagun betebeharrak ezagutzeko mintegia.

## 9. “LAN HITZARMENAK” MAHAI-INGURUA

Lanpostu bat betetzerako garaian enpresari eta langileen artean egon daitezkeen akordio motak ezagutzeko mintegia.

## 10. “KONTRATUAK” MAHAI-INGURUA

Kontratuen ezaugarriei buruzko informazioa emango da mintegi honetan, hala nola, zenbat kontratu mota egon daitezkeen. Arlo horretan, partaideentzat interesgarriak izan daitezkeen beste hainbat gai ere landuko dira.

## 11. TALDE BISITA ENPRESA BATERA

Enpresa mundura hurbildu eta aurrez aurre nola funtzionatu eta antolatzen den ezagutzeko bisita bat antolatuko dute.

### Aurrera eramaten den espazioa edo tokia

Galiziako lurralde guztian dago martxan, FEAFESek lau probintzietan dituen ordezkartzen bidez.

### Ebaluazio sistema (nola eta noiz ebaluatzen da...)

Proiektuaren ebaluaketa etengabekoa da, nahiz eta partaideen aukeraketa egitean hasierako ebaluaketa bat egiten den; hurrengo, sei hilabetera eta urtebetera, azkenik. Pertsonaren ibilbiderako ezarritako helburuak lortu diren egiaztatzen da, eta, batik bat, prozesuak irauten duen urtebete horretan programa arrakastatsua izan den ikusteko adierazlerik garbiena lanpostu bat lortzea izango da.

**Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak** (noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...)

Programa 2013an jarri zen martxan eta egundaino jarraitzen du, emaitzak arrakastatsuak direlako eta laneratze portzentajea beste programa batzuetan baino handiagoa delako: 2015-16 urtean %52ko laneratzea lortu zen (60 partaidetatik 31 lagunek aurkitu zuten lana), hiru hilabete baino gehiagoko kontratua egin zitzaizen eta lanegunaren %25 baino gehiago betetzen zuten.

**Emaitza nabarmenenak** (helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea ...)

Hasieran, programak honako helburuak zituen: partaideen %37k sei hilabete baino gehiago iraungo zuen lanpostua aurkitzea eta gutxieneko laneguna %25ekoa baino handiagoa izatea (alegia, 10 ordu astean). Helburu nagusiak kalitatezko enplegua eta programan parte hartzen duen pertsonaren esperientziari balioa ematea ziren. Horien familia eta senideentzat ere mesedegarria izan zen bere ahaidearen enplegarritasuna, motibazioa, autoestimua, norbere buruaren ikusmoldea, jarduera eta komunitatearenganako inplikazioa hobetzen zirela ikusten zutelako, eta, oro har, integratuago. Egun, lan merkatua konplexuagoa dela kontuan hartuta, helburuak aldatu dira: kontratuaren iraupena hiru hilabetekoa da eta gutxieneko laneguna %25ekoa.

Programa baliatu duten pertsonen iritziz, norberaren beharretara egokitutako programa izan da eta malgua. Era berean, pertsona batek laneratzeko aukera gehiago izateko ziurtagiri profesional bat beharko balu, edo akreditazio bat, karneta.... sostengua ematen zaiola nabarmendu dute bai bilatzeko, sartzeko edota ordaintzeko (erabiltzaileentzako erreserba bat dago bekak eskatzeko). Horrez gain, aurretiazko lanez kanpoko praktikak begi onez ikusi dituzte, baita enpresekin egiten duten lan bitartekaritza ere. Lan bilaketarako nahiz hori mantentzeko laguntza eta jarraipena ere aipatu dituzte.

**Erreplikatzeko aholkuak** (norbaitek horrelako ekimen bat martxan jarri nahiko balu zein aholku emango litzaioke...)

Lan pertsonalizatu edo bakarkakoa egitea da alderdi garrantzitsuena, arreta integrala eskainiz, pertsona bakoitzak bere beharrak dituelako eta horri egokitutako arreta behar duelako.

Prozesuak arrakasta edukitzeko kontuan hartzeko beste funtsezko alderdi bat pertsonak edota bere inguruak ezkutuan dituen beharrak antzematea da, horrela, beharrezko sostengua eman ahal izateko eta behar horiek laneratzeko prozesuan oztopo izan ez izateko.

Sarean egindako lana eta euskarri natural eta baliagarrien bilaketa ere kontuan hartu behar ditugu laneratzeko prozesua erraztu ahal izateko.

**Bestelako informazioa**

## 8.PRAKTIKA - LA CAIXAREN INCORPORA SALUD MENTAL

**saludmental**  
incorpora de "la Caixa"

### 1. ENTITATEAREN ETA ESPERIENTZIAREN OINARRIZKO DATUAK

#### Entitatearen izena

Obra Social "La Caixa" ("La Caixa"-ren gizarte ekintza)

#### Entitatearen kokapena (egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu)

Katalunia (Bartzelona).

#### Entitate mota (Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...)

Banku Fundazioa.

#### Erakundearen ekintza arloak (Dependentzia-helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...)

Buru Osasuna eta bazterkeria egoeran egon daitezkeen beste kolektibo batzuk.

#### Entitatearen tamaina (Ordainpeko pertsonen kopurua...)

#### Esperientziaren izena: TITULUA (Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...)

Incorpora Salud Mental

#### Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA (azaldu 10 lerrotan gehienez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...)

"La Caixa"ren **Incorpora Salud Mental** gizarteratze eta laneratze programa bat da, eta helburu nagusia buru osasun arazoak dituzten pertsonak enpresa arruntetan laneratzea da.

Ekintza ereduari dagokionez, laneratze-sare bat sortzea da atxikitako gizarte-erakundeekin elkarlanean (kolaborazio hitzarmenak eginez) eta zonaka banatzea Incorpora taldeak osatuz. Erakunde sare zabal horren bidez, programak sinergiak ezarri nahi ditu gizarte bazterketa saihesteko.

Programa kudeatzen duten erakundeak horren erabiltzaile izango diren pertsona eta enpresengana zuzentzen dira laneratzeaz arduratzen diren profesionalen bidez, eurak baitira gizarte bazterketa arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko ekintza zehatzen diseinua aurrera eramango dutenak.

Modu horretara, programaren ekintzak ez dira bakarrik pertsoneri zuzenduta egongo, baita enpresa laguntzaileei eta gizarte-erakundeei ere.

Azken horiek, programaren babesarekin, honako zerbitzu hauek eskaintzen dituzte:

- Kontratatzeko eta langileak bilatzeko enpresentzako informazioa eta aholkularitza.
- Laneratze-ibilbide pertsonalizatuak pertsonak enpresetan hobeto integratzeko.
- Pertsona eta enpresentzako laguntza lanpostura egokitu eta hura mantentzeko.

**Kontaktuaren datuak** (norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...)

**Harremanetarako pertsona:** Incorpora Salud Mental programaren babeserako bulego teknikoa.

**Helbidea:** Avenida Diagonal, 621-629. 08028 (Bartzelona)

**Telefonoa:** 902 22 30 40

**Emaila:** [info@incorporasaludmental.org](mailto:info@incorporasaludmental.org)

**Informazio gehiago:**

 [www.incorporasaludmental.org](http://www.incorporasaludmental.org)

---

## 2. ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA

---

**ERRONKA edo gainditu nahi den desafioa** (dimentsioren batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...)

Buru osasun arazoak dituzten pertsonak enpresa arruntetan laneratzea.

**Partaideak eta rola** (nortzuk parte hartzen duten eta zein den kolektibo bakoitzaren rola...)

“La Caixa”-ren gizarte ekintza, gizarte-erakundeak eta enpresa arruntak.

**Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak** (esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, besteren bat ere konprometitu bada bakarrik...)

## Nola sortu da, testuingurua

Incorpora Salud Mental programaren abiapuntua enpresek eta gizarte-erakundeetatik etorri da, haiek egindako eskaera bat dela eta. Hala, langabeziak gehien eragiten dien kolektiboetako bat dela aintzat hartuta, irtenbide bat aurkitu nahi dute.

Buru gaixotasunak dituzten pertsonak daramaten estigmak bizitza proiektu bat garatzea oztopatzen die, baita gizartearen gainontzekoak duen autonomia lortzea eta aukera berdintasuna, ere. Egoera hori hobetzea da programa honen helburua. Lan duina eta kalitatezkoa edukitzea pauso garrantzitsua da buru gaixotasuna duten pertsonak gizarteratzeko garaian.

## Helburuak

“La Caixa”-ren gizarte ekintzaren Incorpora Salud Mental Programaren helburuak honako hauek dira:

- **Enplegu aukera gehiago** sortzea enpresa arruntetan Incorpora programari atxikitako gizarte-erakundeekin elkarlanean.
- Buru osasun arazoak dituzten pertsonak laneratzeko enpresei **Enpresen Gizarte-Erantzukizunerako** aukera eskaintzea Incorpora osatzen duten erakunde-sarearen laguntzarekin.
- Incorpora sarea osatzen duten **erakundeak ahalduntzea** buru gaixotasuna duten pertsonak laneratzeko gaitasuna hobetzeko eta euren teknikarien prestakuntza profesionala ahalbidetzea.

## Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna

Incorpora Salud Mental programaren arrakastaren ardatza elkarlan sarea da: autonomia erkidego bakoitzean dago martxan, eta **350 gizarte-erakundek baino gehiagok** osatzen dute. Horietatik 60k, normalean, buru osasun arazoak dituzten pertsonen kolektiboa artatu eta aholkularitza eskaintzen diote lan bilaketa prozesuan.

Incorpora Salud Mental programak Babestutako Enplegua metodologia erabiltzen du, eta lurralde bakoitzeko txertatze eredu propioak errespetatzea da bere asmoa. Era berean, horiek indartu nahi ditu buru gaixotasuna duten pertsonak merkatu arruntean laneratzeko kalitate eta kantitate handiagorekin egin ahal izateko.

Gizarte-erakundeen laneratzeko teknikarien laguntza eta jarraipena funtsezkoa da bai enpresa nahiz langilea ere ahalik eta hobekien integratu ahal izateko. Horretarako teknikariek honako ekintza plana eramaten dute aurrera:

### Kontratazeko beharrak detektatzeko aholkularitza eta azterketa

Programako teknikariek enpresari lagun diezaiokete nolako jarduera dinamika eta kontratazio fluxua duen aztertzen. Horrela, errazagoa izango da langileak integratzeko kolaborazioak sinkronizatzea (baita formatiboak ere) enpresa eta Incorporaren artean.

### Enpresaren eskaeraren arabera, profil profesionalak aztertu eta definitzeko babesa

Lanpostu bakoitzerako zein pertsona profil nahi den zehaztea beharrezkoa da. Izan ere,

batzuetan eskaintzek kategoría bakarra definitzen dute (adibidez, sukaldari-laguntzailea) eta xehetasun gutxi ematen dituzte eskatzen dutenari eta egin beharreko zereginen buruz. Horrek enpresen benetako beharren eta Incorporako teknikariak interpretatzen duenaren arteko hutsegiteak eta ezberdintasun garrantzitsuak saihesten ditu.

### **Aurrehautaketa prozesuak aurrera eramatea**

Enpresak eskatutako lanpostuak betetzeko hautagaien aurrehautaketa egiten du Incorporak, eta, bere iritziz, aproposenak direnak aukeratzen ditu. Hala eta guztiz ere, enpresa izango da hautatze-prozesuan onartuko duen edo ez erabakitzen duena. Prozesu horiek lan-eskaintza eta hautagaia parez pare egotea ahalbidetzen dute; alegia, enpresari ez zaio lanpostu hori betetzeko hautagai arrunt bat iristen, hautagai aproposena baizik.

### **Langileen-biltze aktiboa**

Incorpora enpresarentzat erreferentziazko langileen hornitzailea izango da, bere beharrak ezagutzen dituelako, baita artatzen dituen pertsonen okupagarritasuna ere. Programak kalitatezko zerbitzua eskaintzen du, eta hori aurrehautatutako hautagaien aurkezpenean islatzen da, baita lanpostuaren txertatze, egokitze eta mantenuaren jarraipen zehatza egiterakoan ere.

### **Jarraipena**

#### **Langileena**

Incorporako teknikaria erreferente izango da laneratutako pertsonarentzat, eta pixkanaka langilearen lehiakortasuna garatzen joatea ahalbidetuko du. Horretarako, lanpostua mantentzeko eta lan-promozioa sustatzeko laguntza emango dio.

#### **Gertakariena**

Enpresak solaskide bat izango du bere esku sor daitezkeen zalantza eta gertakariei erantzuteko. Prozesuan zehar, edozein momentutan eska dezake. Jarraipen mota eta aldizkakotasuna (aurrez aurrekoa izan edo ez) inplikatuaren artean erabakiko da.

### **Aurrera eramaten den espazioa edo tokia**

Autonomia erkidego guztietan.

### **Ebaluazio sistema (nola eta noiz ebaluatzen da...)**

### **Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak (noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...)**

### **Emaitza nabarmenenak (helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea ...)**

### **Erreplikatzeko aholkuak (norbaitek horrelako ekimen bat martxan jarri nahiko balu zein aholku emango litzaioke...)**



## Bestelako informazioa

*Buru osasunean nabarmendutako praktikak:  
zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen  
gizarteratze eta laneratzearen esku-hartze  
integrala*

### 9.PRAKTIKA - EMAKTIVA PROGRAMA



## 1. ENTITATEAREN ETA ESPERIENTZIAREN OINARRIZKO DATUAK

### Entitatearen izena

EDE Fundazioa eta Suspergintza Elkartea.

### Entitatearen kokapena (egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu)

Bilbo. Bizkaia.

### Entitate mota (Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...)

Hirugarren sektoreko erakundea.

### Erakundearen ekintza arloak (Dependentzia-helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...)

Bazterkeria, babesgabetasuna.

### Entitatearen tamaina (Ordainpeko pertsonen kopurua...)

90 pertsona.

### Esperientziaren izena: TITULUA (Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...)

EMAKTIVA Programa: euren etorkizuna eraikitzen ari diren emakumeen motibazioa, aukerak eta enplegarritasuna.

**Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA** (azaldu 10 lerrotan gehienez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...)

EMAKTIVA programaren helburu nagusia zaugarritasun egoeran dauden edo indarkeria matxista pairatu duten emakumeak gizarteratu eta laneratzea da. Horretarako, laneratzeko bakarkako ibilbideak eta prestatze-formakuntza baliatzen ditu.

EMAKTIVA programaren asmoa banaka eta taldeka gizarteratze eta laneratzeko laguntza ematek emakumeen enplegarritasuna handitzea da. Izan ere, gure esperientzian zehar laguntza eskainiz, ondorioztatu ahal izan dugu zaugarritasun egoeran dauden emakume bakoitzaren oztopo, erronka eta testuingurua ezberdina dela, eta, horrenbestez, programa eta lan ildo zehatzak eta desberdinak behar dituztela.

**Kontaktuaren datuak** (norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...)

**Harremanetarako pertsona:** Grace Requejo

**Helbidea:** Simón Bolívar 8 bis

**Telefonoa:** 94 400 99 99 / 688 80 93 94

**Emaila:** emaktiva@fundacionede.org

**Informazio gehiago:**



[www.emaktiva.org](http://www.emaktiva.org)

## 2. ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA

**ERRONKA edo gainditu nahi den desafioa** (dimentsioen batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...)

**EMAKUMEEN PROFIL**ri dagokionez: Emakume guztiak desabantaila egoeran daude maila laboralean, baina emakume izateak dituen desabantailez gain, indarkeria sexista edo zaugarritasun egoera jasan behar izatea gaineratu behar zaizkio kolektibo honi. Horiek kolektiboaren gizarteratze eta laneratzean eragina daukate.

Laneratzeko programa INTEGRAL bat izatea da erronka, emakumeei zuzendutakoa eta BAKARRA. Izan ere, zaugarritasun egoera nahiz indarkeria sexista egoerak BATERATZEA ahalbidetuko du (genero indarkeriaz harago). Bi egoera horien artean lotura estua dago pertsonari eta bere lan egoerari dagokionez. Hori izango da beste programekin alderatuta izango duen ezberdintasun nagusia, horiek edo zaugarritasun egoeran dauden emakumeei zuzenduta daudelako edo genero indarkeria jasan duten emakumeei.

**KONTUAN HARTZEKO IKUSPEGIA:** Proiektuaren leloa honakoa da: **EUREN ETORKIZUNA ERAIKITZEN ARI DIREN EMAKUMEEN motibazioa, enplegarritasuna eta aukerak.**

Kontuan hartzeko begirada positibo hori lengoaian ere antzematen da. Programak euren etorkizuna eraikitzen ari diren emakumeei zuzentzen zaiola iragartzen du, ez emakume ahul edo biktimei. Laguntza pertsonen potentzialtasunean oinarritzen da, ez euren ahultasunetan.

Aktibazioa landu eta enplegua erdigunean jartzeko gakoa da motibazioa. Horregatik, talde lanean eta bakarkako esku-hartzean motibazioa lantzen dute, epe luzeko langabezia egoeretan eta aktibazio prozesuetan orientatzaileek bizigarriak eskaini behar izaten dituztelako eta bultzada eman.

**Partaideak eta rola** (nortzuk parte hartzen duten eta zein den kolektibo bakoitzaren rola...)

**Erabiltzaileak:** prozesuaren protagonistak. Laguntza, prestaketa, aukerak eta formakuntza... jasotzen dute. Bakarkako nahiz taldekako ekintzetan parte hartzen dute.

**Orientatzailea:** parte hartzen duten emakumeei laguntza osoa eta pertsonalizatua ematen die bakarka nahiz taldeka. Emakume partaideen enplegagarritasun eta aktibazio maila zehazten ditu, laguntzaren hasieran eta horrek iraun bitartean.

**Hezitzaileak/Lanaz aurreko tutorea:** partaideak laneratzeko baliabide pertsonal zein profesionalak eta oinarritzko konpetentziak nahiz zeharkakoak bultzatzen ditu. Banaka nahiz taldeka partaideak ahaldundu daitezten egiten du lan. Era berean, gizarte eta hezkuntza arloan formatzeko ekintza eta tailerrak antolatzen ditu. Azken horiek beharrezkoak dira zaugarritasun edo indarkeria sexista egoerak jasan dituzten edo jasaten ari diren emakumeak prestatzeko, gero, lana aurkitzeko aukera gehiago izan ditzaten.

**Enplegurako formazio tekniko-profesionaleko teknikaria:** enplegurako formazio ekintzak aurrera eramaten ditu teknikak, estrategiak eta bitarteko didaktikoak erabiliz.

**Lan bitartekaritza langileak:** hainbat sektore aztertzen ditu enpresek kontratatzeko dituzten beharrak topatzeko. Enpresetatik beharrezko informazioa jasotzen du lana bilatzeko prozesua babestu eta programa berriak antolatzeko. Horrez gain, enpresariari hainbat gairen inguruan informazioa eta orientazioa emateaz arduratzen da: emakumeen kontratazioa enpresetan, emakume eta gizonen berdintasunerako politikak, coaching prozedurei buruzko aholkularitza, formakuntza...

**Enpresak:** laneratzeko aukerak eskaintzen dituzte edo programari beste modu batera laguntza eman.

**Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak** (esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, besteren bat ere konprometitu bada bakarrik...)

2014-2020 eperako Europako Gizarte Funtza Programa Operatiboa.  
Eusko Jaurlaritza - Lanbide: programa finantzatu dute.  
Bizkaiko Foru Aldundia. Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Saila.

**Nola sortu da, testuingurua**

Suspergintza Elkartearen Emakume Arloko Zerbitzuek egindako ondorioztatzetik sortu da programa. Laneratzeko oztopoak antzeman dituzte indarkeria jasan duten emakumeen artean, eta horrek euren ahalduntzea, autonomia ekonomikoa lortzea eta

bizitza berreraikitzea eragozten dute.

Era berean, EDE FUNDAZIOAren Enplegu Zerbitzuak egiaztatu du gizarte zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak laguntzeak abantailak dakartzala horien gizarteratze eta laneratzean: egoera horietan dauden emakumeek gizonak baino oztopo gehiago dituzte enplegagarritasuna hobetzeko, lanerako sarbidea edukitzeko edo lanpostu bat mantentzeko.

Bi entitateek proposamen bat landu zuten 2015ean, eta laguntzak iraun duen bitartean jasotako esperientzia eta egindako bidea baliatuz. Horiek gizarte eta hezkuntzarako laguntza ikuspegia jasotzen dute (zehazki errealitate horretara moldatutakoa) gure zerbitzuetara hurbiltzen diren emakumeen eskutik.

## Helburuak

### 1. Gizarte-zaurgarritasun egoeran dauden emakumeentzat

- Bizitzeko dinamismo positiboak sustatzea, genero ikuspegitik. Modu horretara, euren ahalduntzea eta autonomia ekonomikoa indartu nahi dituzte, gizarte-zaurgarritasun egoeratik atera daitezten.
- Enplegagarritasun ibilbidean aurrera egiteko kompetentziak garatzea.
- Enplegu prekarioak antzeman, promozionatu edo uztea bultzatzeko lanprestakuntza eskaintzea.
- Lana lortzeko laguntza ematea.
- Partaideek bere gain adin txikikoak eta mendeko pertsonak badituzte eta horrek lanpostu bat lortzea oztopotzen badie, laguntza eskaintzea.

### 2. Emakume horien gizarteratze eta laneratzea bultzatu nahi duten sektore publiko eta pribatuko erakundeentzat

- Erakunde horietako langileen beharrak ezagutzea (azterketa).
- Emakumeek emakumeen kontratazioa ezagutu eta babestu dezaten andre partaideek merkatuari egokitutako kompetentziak garatzea (bitartekaritza).
- Enpresak Berdintasun eta Gizarte-Erantzukizun Politikak sustatzearen beharren gainean kontzientziazatzea gizarte-zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak kontratatuz.
- Proiektuak iraun bitartean jasotako ezagutza eta praktika egokiak sistematizatzea.
- Esku-hartzearen eremuan lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuen artean zabaltzea.

## Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna

Eragiketa eta ekintza eskema honetan zehazten da proiektua.

### 1 Eragiketa. Gizarteratze eta laneratzean integratutako ibilbideak

#### 1.1 Gizarteratze eta laneratzeako barkakako nahiz taldekako laguntza.

- 1 Fasea: harrera
- 2 Fasea: gizarteratzea
- 3 Fasea: laneratzea
- 4 Fasea: itxiera

## 1.2. Enpresen bitartekotza eta lankidetzaren programa

- 1 Fasea: azterketa
- 2 Fasea: lankidetzaren definitzea
- 3 Fasea: oinarrizko zerbitzuen kudeaketa
- 4 Fasea: zerbitzu berezituak
- 5 Fasea: lankidetzaren ekintzak aurrera eramatea
- 6 Fasea: itxiera

## 1.3. Zainketan laguntzeko programa

### 2 Eragiketa: Prestakuntza programak

#### 2.1. Konpetentzia tekniko-profesionalen formakuntza

#### 2.2. Prestakuntza planak, oinarrizko konpetentziak, pertsonalak edota zeharkakoak.

### Aurrera eramaten den espazioa edo tokia

Bilbon, EDE Fundazioaren eta Suspergintza Elkartearen egoitzan: Simon Bolivar 8b Bilbo.

Banakako arretako bi bulego ditu, baita 200 metro koadroko areto eskusiboa talde ekintzetarako nahiz formakuntza ikasgeletarako.

### Ebaluazio sistema (nola eta noiz ebaluatzen da...)

Urtero. Efizientzia, eraginkortasun eta inpaktuaren adierazle sistema.

### Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak (noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...)

Esku-hartzea 2016an jarri zen martxan, baina irailera arte ez da ikasturteko ziklo osoa betetzen.

Asmoa bost ziklo oso betetzea da, eta ibilbide integralekin batera jarraipena izango duen programa zehatza izatea du helburu.

### Emaitza nabarmenenak (helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea ...)

- 45 emakumetatik 40k kalifikazio bat lortu zuten 2017an.
- 2017an parte hartu zuten 76 partaidetatik 55 lan bila ari dira, hezkuntza eta formakuntza sistematan sartu dira eta kalifikazio bat edo lana lortu dute (norberaren konturako lana ere aintzat hartuta).

### Erreplikatzeko aholkuak (norbaitek horrelako ekimen bat martxan jarri nahiko balu zein aholku emango litzaioke...)

- Enplegu eta emakumeen programetan **zainketari sostengua ematea** funtsezkoa da. Programak berak kontuan hartzen du eta irtenbideak

proposatzen ditu ekonomia feministaren ikuspegitik.

- **Taldeko metodologia gehienbat:** Lan-egitasmo eta banakako arreta kontuan hartu arren, esku-hartze metodologia bizitzako-esperientzien ikasketetan oinarrituta dago, eta proiektuaren barruko hainbat gunetan garatzen da, batik bat Emaktiva Enplegu Espazioan. Partaideak bertan elkartzen dira, elkar ezagutzen dute eta enplegurako zeharkako-konpetentziak lantzen dituzte. Ikasketek espazio formal eta informalak lotu izanak norbera garatzeko inguruneak eratzea bultzatu du.
- **Ikuspegi feminista:** Egoera sozialaren, genero baldintzatzaileen eta ekonomia feministaren printzipioen ikuspegitik aztertu eta esku-hartzen du. Partaideei genero kontzientzia ematen die. Proiektu guztian zehar genero ikuspegia txertatzen du. Ia lan-talde guztiak genero ikasketak ditu, beste hainbat gairen artean.

Ikuspegia beste arlo batzuetara ere hedatzen da: profesionalak ekartzetik, dekorazioa, mezuak, esku-hartzea, formazio ekintzak eta ahalduntze tailerrak egitea partaide guztientzat.

- **Konpetentzia digitalak lortu eta IKTen erabilpenean enfasia jartzea.** Emakumeen lan bilaketarako nahiz lan garapenerako beharrezkoak dira. Gainditzea beharrezkoa den oztopo nagusienetako bat da.

Prestakuntza-ekintza gehienak konpetentzia digitalen modulu bat daukate. Talde laguntzari buruzko, eta, sareko lan bilaketari buruzko tailerretan, batik bat (taldekakoak), komunikazio ekipo ugari erabiltzen dituzte. Horrez gain, tailer zehatzak daude IKT erremintak erabiltzen ikasteko (hiru maila daude). Horren bidez, emakumeek tailerretan jarraitzea eta sarean enplegua bilatzen segitzea dute helburu.

## Bestelako informazioa

## Besteak: langabeentzako coachinga

### 10.PRAKTIKA - LANZADERAS DE EMPLEO



#### 1. ENTITATEAREN ETA ESPERIENZIAREN OINARRIZKO DATUAK

##### Entitatearen izena

Ondare historikoaren Santa Maria la Real fundazioa

##### Entitatearen kokapena (egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu)

Espania. Aguilar de Campo (Palentzia).

##### Entitate mota (Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...)

Hirugarren Sektoreko erakundea – Fundazioa.

##### Erakundearen ekintza arloak (Dependentzia-helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...)

Kultura/Enplegua

##### Entitatearen tamaina (Ordainpeko pertsonen kopurua...)

200 pertsona.

##### Esperientziaren izena: TITULUA (Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...)

Lanzaderas de Empleo y Emprendimiento Solidario (Enplegu anezkak eta elkartasun-ekintzailletza).

##### Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA (azaldu 10 lerrotan gehenez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...)

Anezka bat langabezian dagoen pertsona talde anitza da **izpiritu dinamikoa, konprometitua eta solidarioa** duena. Pertsona horiek euren kabuz hartzen duten parte inizatiba horretan, eta, coach batek koordinatuta, euren konpetentziak indartu, talde-ezagutza sortu eta ikusgarri egiten dira. Helburu komuna lortzeko elkarlanean aritzen dira: enplegua lortzea, norberaren kontukoa izan edo soldatapekoa.

**Kontaktuaren datuak** (norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...)





**Harremanetarako pertsona:** Álvaro Retortillo Osuna

**Helbidea:** Marqués de Valdeiglesias 5 kalea, 2º Eskuina. 28004. Madril.

**Telefonoa:** 627577012

**Emaila:** [aretortillo@santamarialareal.org](mailto:aretortillo@santamarialareal.org)

**Informazio gehiago:**

 [www.lanzaderasdeempleo.es](http://www.lanzaderasdeempleo.es)  
 [www.facebook.com/LanzaderasDeEmpleo](https://www.facebook.com/LanzaderasDeEmpleo)  
 [https://twitter.com/Lanzaderas\\_EES](https://twitter.com/Lanzaderas_EES)  
 [www.youtube.com/user/CanalLanzadera](https://www.youtube.com/user/CanalLanzadera)

## 2. ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA

**ERRONKA edo gainditu nahi den desafia** (dimentsioren batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...)

Langabezian aurrean gizarteak esku hartzea. Lan merkatuaren egoera gizartearen arazo nagusienetako bat da, egun, Europa hegoaldeko herrialdeetan, eta, batik bat Espainian. Egungo enplegu politika aktiboak, beharrezkoak izan arren, nahikoa ez direla egiaztatu ahal izan da, eta errealtateak gainezka egiten du egundaino hartu diren neurriekin. Urte hauetan guztietan garatutako lan-prestakuntza edota orientazio profesionalaren ondoren, egungo egoera gainditzeko beharrezko ardatzak izango direla aurreikusi dute adituek, baina langabearen pasibotasun eta indibidualismorako joerak eta gainontzeko langabeek bezala sektore jakin batzuetan zentratzeak formula berriak asmatzea eragin du. Horregatik, Lanzaderas de Empleo eta Emprendimiento Solidario (Enplegu Anezkak eta Ekintzaitetza Solidarioa) ikuspegi horrekin hautsi nahi du, lankidetzaren eredu aurrera eramanez, solidarioa izango dena eta elkarlanean jarduteko gai izango dena.

**Partaideak eta rola** (nortzuk parte hartzen duten eta zein den kolektibo bakoitzaren rola...)

Santa Maria la Real fundazioa – Proiektuaren kudeaketa  
 Teknikari bat – Coach bat/egitasmo bakoitzeko  
 20 langabe/talde bakoitzeko

**Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak** (esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, besteren bat ere konprometitu bada bakarrik...)

Enpresa pribatuak – Finantzazioa  
 Administrazio publikoak – Finantzazioa, espazioak uztea, hedapena  
 Profesionalak – Boluntariora

### Nola sortu da, testuingurua

“Lanzaderas de Empleo y Emprendimiento Solidario” langabeziaren aurrean gizartearen esku-hartzea garatzeko filosofia berri bat da. José María Pérez *Peridis*-ek



sortu zituen egungo krisi ekonomikoari eta langabezia tasa altuei aurre egiteko aukera eta irtenbide gisa. Ikuspegi aldaketa proposatzen du baita orain arte aurrera eraman diren laneratze politiketan ere.

### Helburuak

- Anezketan parte hartzen duten pertsonak lanpostu bat lortzea, norberaren kabuz edo soldatapeko gisa, edo hezkuntza formalean berriro txertatzea.
- Enplegarritasuna eta zeharkako konpetentziak hobetzea.
- Gizarte-babesa hobetzea.

### Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna

“Lanzaderas de Empleo”-k langabeari tradizionalki eransten zaion jarrera pasiboarekin hautsi nahi du. Aldaketa eta ekintzara deitzen du, baita talde-lan konprometitu eta proaktibora ere. Modu horretara, langabeek ilusioa berpiztu dezaten nahi dute baita lana aurkitzerako garaian edota enpresa-proiektua garatzerako garaian euren eskura dituzten konpetentzia eta trebetasun guztiak ezagutu ditzaten ere.

Ikuspegi aldaketa hori lortzeko, “Lanzaderas de Empleo”-ren lan metodologia coaching teknikan oinarritzen da taldea dinamizatuko duen coach baten laguntzaz. Edonola ere, langabeak eurak izango diren beren enplegarritasun prozesuaren protagonistak. Konfiantza eta elkarlaguntza ingurune bat eraikiz, coaching saioak egiten dituzte, eta, bertan, adimen emozionala, komunikazioa eta kreatibitatea lantzen dituzte. Horrez gain, curriculumak egin eta aurkezteko teknika berriak ikasten dituzte eta lan elkarrizketetan nola jokatu aztertzen dute hainbat dinamika gauzatuz. Azkenik, marka pertsonala lantzen ikasten dute, ezberdintzen eta lan merkatuan tokia egiten. Azken helburua euren enplegarritasuna hobetzea da egungo egoerak jarritako erronkei jarrera aktibo, konprometitu eta solidario batekin aurre egiteko.

### Aurrera eramaten den espazioa edo tokia

Espainiako autonomia erkidego guztietan. Esperientzia pilotua Portugalen egin da.

### Ebaluazio sistema (nola eta noiz ebaluatzen da...)

- Aurretiazko ex ebaluaketa: Anezken programazioa
- Prozesuaren ebaluaketa: ebaluazio jarraia eta aurrez aurrekoa Lanzaderasen lagin batean.
- Ondorengo ex ebaluaketa: txertatzeak, prestakuntzak, pertsonengan izan duen eragina, enplegarritasuna...

### Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak (noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...)

Lanzaderas programa bost esperientzia pilotutan erabili zen 2013an: lau Kantabrian, eta bat Aguilar de Campoon (Palentzia). Kantabriako anezkak Kantabriako

Gobernuaren laguntzari esker jarri ziren martxan, eta Aguilar de Campookoak Santa María Real fundazioaren eta Profesor Uria fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmenari esker. Esperientzia horiek lortutako arrakastaren ondoren, 2014an beste 43 anezka jarri ziren hainbat autonomia erkidegotan, eta honako erakunde hauek finantzatu zuten: Kantabriako Gobernua, "La Caixa"ren gizarte ekintza, Barclays fundazioa, Andalucía Emprise fundazioa, Acción Contra El Hambre, UNIR eta Errioxako Gobernua, Carcaixent eta Valdepeñasko udalak... Horrez gain, Telefonica fundazioa bazkide pribatu bezala sartu zen programan, eta egun bazkide pribaturik nagusia da. 2015ean programa hazten joan zen, eta horretarako funtsezkoa izan da hurrengo erakunde hauen elkarlana: Telefonica fundazioa, Kantabriako Gobernua, Andalucía Emprise fundazioa, Barclays fundazioa, ECYL, EEA Grants eta Emakumearen institutua, Caja Burgos fundazioa eta La Caixa banku-fundazioa, Gandiako udala, Gijongo udala, Valladolideko udala... 2016-2020 epean, programa Europako Gizarte Funtzak hautatua izan da, eta 2019. urterako 12.000 lagunetara iristea du helburu. Momentu honetan, 400dik gora esperientzia egin dira autonomia erkidego guztietan, 8.000 lagunenganaino iritsiz. Lehen esperientzia pilotua 2016an egin zen Portugalen.

**Emaitza nabarmenenak** (helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea ...)

Gaur arte partaideen %50ak baino gehiagok lortu dute lana norberaren kontukoa izan zein soldatapekoa edo, bestela, ikasketekin jarraitu dute.

Red Crearen kanpo eragin azterketa (2015). Txertatze garbia kontrol taldekoa baino 20,9 puntu handiagoa.

Euskal Herriko Unibertsitateak azterketa egin du Bizkaiko Lanzaderas-en; Txertatze garbia 20 puntukoa izan da kontrol taldearekin alderatuta.

**Erreplikatzeko aholkuak** (norbaitek horrelako ekimen bat martxan jarri nahiko balu zein aholku emango litzaioke...)

Santa Maria la Real fundazioarekin harremanetan jarri dira programa erreplikatzeko edo egokitzeko interesa agertu dutelako.

**Bestelako informazioa**

## 6. PRAKTIKA EGOKIEN AZTERKETATIK ATERATAKO ONDORIOAK



Orain arte azaldutako hainbat praktika egokitatik jasotako zenbait ikasbide zehazten dira, jarraian, eta programa berriak edo antzeko iniziatibak martxan jartzerako garaian nondik nora jo jakiteko edo kontuan hartzeko gakoak izan daitezke

- **Lana oinarrizko elementua da** buru osasun arazoak dituzte pertsonak gizarteratzeko, ez bakarrik ekonomikoki autonomoa izatea ahalbidetzeagatik, baizik eta pertsona horiek errekupeazio psikosozialeko prozesuaren gakoetako bat delako. Hala ere, kontuan hartu behar da lanpostu bat lortzea ez dela adierazle bakarra enplegarritasunera bideratutako edozein ekintza arrakastatsutzat jotzeko, **beste arlo batzuk ere ekintza horren arrakastaren berri eman diezagukete**. Esate baterako, kontratazioaren baldintzak, enpleguaren iraupena, aurrera eramaten den lana (gizarte prestigio baxuko lana den, iritzi txarrekoa...), soldata etab.
- Lan bitartekaritza generikoak edo hainbat kolektibotan aplikatutakoak ez dizkie buru osasun arazoak dituzten pertsonak egun dituzten enplegarritasun arazo zehatzei irtenbiderik ematen. Zentzu horretan, geroz eta beharrezkoagoa da **lan**

**bitartekaritza zehatza eta pertsonalizatua** aurrera eramatea, ezaugarri zehatzak kontuan hartuko dituen; alegia, ez bakarrik kolektiboarenak, baizik eta lantzen ari diren pertsona bakoitzarenak (**#1. Laguntzaile- Pertsonala; #4. La Fageda; #6.ASAFESen enplegu programa**).

- Dударik gabe, buru osasun arazoak dituzten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko beharrezkoa da **ekintza integralak** aurrera eramatea. Funtsezkoa da enplegarritasunarekin lotutako ekintzetara bakarrik ez mugatzea, baizik eta, paraleloki, beste arlo batzuetan eragina izan beharko dute: sentsibilizazioa, kolektiboaren ikusgarritasuna eta normalizazioa, desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa areagotzea etab. (**#6.- ASAFES enplegu programa; #7.- Programa Integrado do Emprego**)
- Egungo lan merkatuaren ezaugarriak kontuan hartuta (langabezia tasa altuak, lanaren prekarizazioa, behin-behinekotasuna etab.), kolektiboaren artean lan aukera berriak sortzen laguntzeko **gizarateratze eta laneratze eredu berritzaileen** alde jokatzeko garrantzitsua da. Ikusi ditugun esperientzia batzuetan, enpresa-sarearen parte hartze ereduak nabarmentzen dira (**#5. For&From**); beste batzuetan, berriz, gaitasunen, konpetentzien eta trebetasunen garapena sustatzearen alde egiten dute coaching edo mentoringa bezalako tresna berritzaileak baliatuz (**#10. Lanzaderas de Empleo**).
- Lan munduan sartzeak dakartzan zailtasunak ezagututa, **merkatu-hobi berriak** identifikatu eta ustiatzea beharrezkoa da. Horrela, kolektiboarentzako lan aukera berri eta errealak sor daitezke (**#1.-Laguntza Pertsonala**).
- Kolektiboaren lan normalizaziora zuzendutako eredu berriak indartzea beharrezkoa da. Gizartera irekita egongo dira eta kolektiboa ikusgarri bihurtuko dute jarduera profesionalaren ohiko garapenean (**#4.-La Fageda; #5.- For&From**).
- Zalantzarik gabe, **sektore pribatua oso garrantzitsua da kolektiboaren enplegarritasuna eta kolektiboaren gizarateratze eta laneratzea sustatzeko**. Horrenbestez, beharrezkoa da sektore horrekin aliantzak sortu eta programak zein ekintzak partekatzea. Hori baliagarria izan daiteke bai enpresentzat baita buru osasun arazoak dituzten pertsonentzat ere: praktikak eskaini ditzakete, buru osasun arazoak dituzten pertsonen lanpostua mantentzen lagundu etab. Txosten honetan, enpresa munduarekin elkarlanean aritzeko hainbat adibide azaldu dira (**#3.- Juntos Somos Capaces; #5.- For&From; #6.- ASAFESen enplegu programa; #8.-Salud Mental Incorpora**).
- Modu berean, interesgarria da desgaitasuna duten beste kolektiboen esku-hartzean parte hartzen duten entitateen lankidetzan eta harremanetan sakontzea, eta kasuz kasu laguntza ematean behar zehatzak errespetatzea (**#6.-ASAFES enplegu programa**)
- **Sentsibilizazio** ekintzak garatzea ere berebizikoa da gizarte integratzaile bat eraikitzeko. Gizarte eredugarri hori osatuko duten pertsona guztiek garatzeko aukera berberak izango dituzte eta bitartekoak nahiz abaguneak eskainiko zaizkie guztiei. (**#2.- Inclúyete Programa**). Sentsibilizazioa maila guztietan eman behar da, eta batez ere garrantzitsua izango da **enpresa arloan**, kolektiboa ohiko lan merkatura hurbiltzeko giltzarria baita (**#4.-La Fageda; #5.-**

**For&From; #6.- ASAFESen enplegu programa; #7.-Programa Integrado do Emprego).**

- **Buru osasun arazoak dituzten pertsonen gizarateratze eta laneratze prozesua arrakastatsua izateko gakoetako bat familia da.** Beraz, ezinbestekoa da haren lankidetzeta eta inplikazioa enplegarritasunarekin lotutako edozein ekintza ondo atera dadin (**#6.-ASAFESen enplegu programa ASAFES; #7.- Programa Integrado do Emprego**). Familiak gehiegi babestea traba izan daiteke gizarateratze eta laneratze prozesua garatzeko. Horregatik funtsezkoa da senide horiek sentsibilizatzeko ahalegina egitea eta haien partaidetza bermatzea.
- **Erakundeek egiten duten lana ezagutarazi eta ikustaraztea** ere aipagarria da buru osasun arazoak dituzten kolektiboa lan merkatura hurbiltzeko lehian. Erakunde horietako batzuk lan bikaina egin dute euren esperientziak ikustarazteko garaian (**#4.-La Fageda**) nahiz eta ez den ohiko joera.
- Kolektiboa enplegura hurbiltzeko programen eta ekintzen **malgutasuna** ere inizatiba horiek arrakastatsu izateko funtsezko baldintza dira. Izan ere, lan merkaturan etengabe izaten diren sartu-irteeretatik sortzen diren arazoak konpondu edo arintzen laguntzeko baliagarria da (**#1.-Laguntza-Pertsonala; #6.- ASAFESen enplegu programa; #7.- Programa Integrado do Emprego**).
- Kolektiboa lan mundura hurbiltzeko programa edo inizatiba bat edozein izanik ere, **buru osasun arazoak dituzten pertsonen ahalduntzea sustatu behar du.** Ezinbestekoa da eurak izatea gizarateratze eta laneratze ibilbidearen agintea hartzen dutenak; prozesuaren protagonistak izan behar dute. Pertsona horiek euren burua “gaixotzat” hartzeari utzi behar diote, eta “langile” gisa ikusten hasi (**#6.- ASAFESen enplegu programa; #10.-Lanzaderas de Empleo**).
- **Enplegarritasuna pizteko ezinbestekoak dira formakuntza eta kualifikazioa,** eta horrenbestez, funtsezkoa da ikuspegi estrategiko batetik aztertzea. Epe motzera zuzendutako ekintzetatik harago, geroz eta beharrezkoagoa da epe ertain eta luzeko neurriak pentsatzea: lan birmoldaketak, espezializatutako ibilbide profesionalak, ikaskuntzak baliatuz hitzarmen eta praktikak ezartzea lan merkaturako enplegu-hobi berrietan. (**#1.-Laguntza Pertsonala; #2.- Inclúyete programa; #7.- Programa Integrado do Emprego**).
- Esperientzia eta inizatiba horiek martxan jartzea baliagarria da ondo egindakoetatik zein gaizki egindakoetatik ere ikasteko aukera ematen dutelako.

Bestetik, praktiken azterketaren ondoren, **hainbat gabezia agerian geratu dira** eta, horrenbestez, **kolektiboaren enplegarritasuna hobetzeko zenbait alderdi jorratu beharko dira**, bai kualitatiboki nahiz kuantitatiboki.

- Faltan bota dira **Administrazio Publikoaren barruan kolektiboa enplegura hurbiltzeko programa edo inizatibak.** Ildo horretan, agerian geratzen da administrazio publikoan enplegu irekiak eta inklusiboak eskatzeko beharra dagoela buru osasun arazoak dituzten pertsonen ere sarbidea izan dezaten. Eskera honetan aipatzen diren alderdi batzuk honakoak dira: plazen %2

desgaitasuna duten pertsonentzat<sup>5</sup> gordetzeko deialdiak betearaztea, deialdiak kolektiboko pertsonak izan ditzaketen beharretara egokitzea (faktore estresagarriak kentzea, etab.), langileen hautaketa egiten duten pertsonak enplegu inklusiboan prestatzea edo, areago, ezaugarri horietako lana lortzerakoan, lanpostua bera moldatzea.

- Buru osasun arazoak dituzten emakumeek jasaten duten diskriminazio bikoitza kontuan hartuta (gaixotasunarekin lotutakoa eta emakumea izateak dakarrena) faltan botatzen dira **buru osasun arazoak dituzten emakumeen gizarteratze eta laneratzeari zehazki erantzungo dien programa eta esperientziak**. Praktika bakarra identifikatzea lortu da espezifikoki emakumeen kolektiboa nabarmendu duena. Hala ere, ez dute bakarrik buru osasun arazoak dituzten emakumeen esku-hartzea lantzen, baita gizarte zaugarritasun egoeran daudenena ere (**#9.- Emaktiva Programa**).
- Azkenik, familia eta lagunek gizarteratze eta laneratzean duten garrantzia kontuan hartuta, faltan bota dira **familien lana erdigunean jartzen duten programa eta inizatibak**.

## 7.ERANSKINAK:

## 8.ERANSKINA I: INTERESEKO BESTE PRAKTIKA BATZUK GIZARTERATZE ETA LANERATZEAN

Atal honetan interesekoak izan diren beste praktika batzuk azaltzen dira, baina ez dira praktika egoki bezala hautatu. Hautatutako praktikekin egin bezala sailkatu egin dira. Kasu honetan, honela: batetik, zuzentzen zaien kolektiboa kontuan hartuta, eta, bestetik, kasu bakoitzak lan merkatuko zein sarbide mota nabarmentzen duen aintzat hartuta..

### **Praktika egokiak buru osasunean:**

*Enplegurako formakuntza eta kualifikazioa:*

#### **KARABELEKO (Gipuzkoa)**

Karabeleko nekazaritza ekologikoa lantzen duen etxalde experimental aitzindaria da. Agifes, Blasenea eta Kimu Bat entitateek elkarlanean sortutako elkarte da, irabazi-asmorik gabekoa. **Helburua nekazaritza ekologikoa sustatzea da, eta barazkigintza ekologikoaren ekoizpen eta kontsumo kultura zabaltzea.**

**Esperimentazio zentro irekia** da, bai publikoarentzat baita barazkigintza ekologikoaren sektoreko profesionalentzat ere. Bertan, hainbat espezie, barazki barietate eta beste

<sup>5</sup> LISMIren 38.1 artikulua araberak, 50 langile edo hortik gora duten enpresa pribatu nahiz publikoek lanpostuen %2 desgaitasuna duten pertsonen gordetzeko betebeharrak daukate.

zenbait produktu aztertzen dituzte, gero, kantauriar eremuko ekoizleei aholkatu ahal izateko.

Era berean, buru gaixotasuna duten pertsonen eta baztertzeko arriskuan dauden beste kolektibo batzuei zuzendutako **errehabilitazio psikosozialerako zentroa** ere bada. Beste helburuetako bat buru gaixotasuna duten pertsonen kolektiboarenganako sentsibilizazioa bultzatzea da.



<http://www.karabeleko.org/>



<https://www.facebook.com/Karabeleko/>



<https://twitter.com/karabeleko>



<https://www.youtube.com/user/Karabeleko>

### AFEJABA (Granada)

AFEMAGRAk aurrera daraman jardura da. Izaera okupazionala du eta enplegurako formatzen laguntzen du landare aromatikoaren laborantza eta baso-bilketaren bidez. Beste jardura batzuk destilazioa, xaboiaren ekoizpena, bonsaien zaintza eta horien salmentarako packagina dira.

Sierra de Bazako Natura-Parkean baso aprobetxamenduko gune bat eraiki zen, eta formakuntza eskaintzen hasi ziren Ekoizpen Ekologiko Baxuko ereduaren bidez: espezie motak, bilketa jasangarria aurrera eramateko metodologia, usain ezberdinak ezagutzea, baliabide natural horrek lurraldean dituen abantailak, erabilerak eta propietateak.

Horrekin guztiarekin batera, baliabide pertsonalak sustatu zituzten partaideei harremanak izaten, euren autoestimua hobetzen, eguneroko zereginak egituratzen ikasten eta elkarbizitzarako balio positiboak txertatzen laguntzeko. Horrez gain, jardura hori hainbat inguruko bitarteko, elkarte, enpresa, gizarte-ekimen eta herritarrekin lotuta dago.



<http://afemagra.blogspot.com.es/>



<https://www.facebook.com/AFEMAGRA/>



<https://twitter.com/afemagra?lang=es>

### Lan praktiketarako laguntza (Caceres)

Santos Quintana enpresak lanez kanpoko praktikak aurrera eramateko aukera eman die FEAFES Cacereseko buru osasun arazoak dituzten pertsonen. "Agendas solidarias 2016" ekimenean bildutako diruari esker.

Urte asko dira enpresa hori FEAFES Caceresekin elkarlanean dabilela, osasunaren sustapenaren nahiz buru osasun arazoak dituzten pertsonen ongizatea eta bizitza

kalitatearen alde. Horrez gain, enplegarritasuna zabaldu eta kolektibo hori ohiko lan merkatuan txertatzea du helburu.



<http://www.feafescaceres.com/>



<http://www.facebook.com/feafes.caceres>



<https://twitter.com/FeafesCC>



<https://www.youtube.com/user/feafesc>

### Ereiaro: nekazaritza terapeutiko eta okupazionala (Arrasate-Mondragon-Gipuzkoa)

Aita Menni ospitaleak nekazaritza terapeutiko eta okupazionala ardatz duen proiektu bat jarri du martxan. Hori aurrera eramateko, Arrasate-Mondragonen (Gipuzkoa) dituen instalazioetan nekazaritza ekologiko haztegi bat eta negutegi bat eraiki ditu. Iniziatiba horren helburua buru osasun arazoak dituzten pazienteek leheneratze prozesua osatzea da, baita haien gizarteratze eta laneratzea bultzatzea ere.

Proiektuaren izena "Ereiaro" da, nekazaritza terapeutiko eta okupazionala ardatz dituen tailerra. Nekazaritza ekologikoa lantzen du, osasun zentroan bertan aurrera eramaten dituzten ekintza, terapia eta okupazio-tailerren bidez. Tailerraren helburua pazienteentzako entrenamendu eta trebakuntza puntu izatea da, terapeutikoki aurrerapausoak eman ditzaten. Era berean, pazienteek gaitasun sozial eta profesionalak garatzen joatea eta berriro komunitatera bueltatu ahal izatea lortu nahi du.

Pazienteek ekoizpen prozesu guztian parte hartuko dute, hazia ereintzen denetik produktua salmentan jartzen den unera arte, bakoitzak dituen gaitasunak kontuan hartuta. Zehazki, pazienteek egingo dituzten zereginak honakoak izango dira: hazi ekologikoak erabiltzea; hazitegi ekologikoa erein eta lantzea; hazitegi ekologikoa osatu eta ereiteko teknikak garatzea; eta askotariko substratu, konpost eta ongarriak sortzea. Pazienteek landare eta lore aromatikoak landatu eta ereiten ere ikasiko dute.

Horretarako, barietate bakoitzak zein oinarritzko beharizan dituen eta bakoitza nola zaindu behar den ikasiko dute. Merkataritza gune bat ere prestatu dute pazienteek produktuak saldu eta balizko erosleekin harremana izan dezaten. Horrez gain, tokian tokiko merkatu eta azoketan euren produktuak saltzeko aukera izango dute.



<http://www.aita-menni.org/es/>



<https://es-la.facebook.com/pages/Hospital-Aita-Menni/135068679891420>

### Proyecto Practicum (Galizia)

FEAFES Galiziaren proiektu honen helburua buru osasun arazoak dituzten pertsonen enpresetan lanez kanpoko praktikak aurrera eramatea da. Guztira, hamabost lagunek 200 orduko prestakuntza praktikoa jasotzen dute enpresetan.



Practicum egitasmoa Pontevedrako Aldundiak finantzatzen du diru laguntza batzuen barruan. Laguntza horiek gizarte ekintzako entitateei zuzenduta daude, espezializatutako gizarte zerbitzu proiektuak gauzatzeko.

Programa horri esker, kolektibo honek bere lan-kompetentziak hobetzeko, lan inguru batera egokitzeko eta lanpostu jakin bat zuzenean ezagutzeko aukera du. Enpresek, bestalde, pertsona horiek nola lan egiten duten ikus dezakete, eta buru osasun arazoak dituzten pertsona bat kontratatu ala ez erabakitzerako garaian aurreiritzi negatiboak albo batera uzten ikas dezakete.



<https://empregofeafes.org/>



<https://www.facebook.com/feafesgalicia>



<https://twitter.com/FeafesGalicia>



<https://www.youtube.com/channel/UCvBF7fzvCRSFpGSSDwIS5qw/feed>

### CONECTAD@S (Santa Cruz de Tenerife)

AFES Salud Mentali eman zaio proiektu hori, Kanarietako Autonomia Erkidegoaren barruan irabazi-asporik gabeko entitateei ematen zaizkien diru laguntzen deialdiaren barruan. Laguntza horiek gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan daudenei, etorkinei eta desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako lan-ibilbide integratuko egitasmoak aurrera eramatera bideratuta daude. 2016ko Europako Gizarte Funtzak ere laguntzen du finantzazioan.

Aurten berritasun bat egon da, eta ibilbidea hasita daudela sartzan diren pertsonen profesionaltasun ziurtagiria lortzeko aukera izango dute. Izan ere, gure PIII Lek Administrazio zerbitzuak zein zerbitzu orokorrak egiaztatzen ditu baita Grabaketa operazioak eta datu eta dokumentuen tratamenduak ere.



<https://saludmentalafes.org/>



<https://www.facebook.com/AFES-Salud-Mental-151165908257543/?fref=ts>



<https://twitter.com/saludmentalafes>



<https://www.youtube.com/channel/UCARjMshXNUzZr9a0JQcND7Q>

### E-INCLUSIÓN (Gaztela eta Leon)

INTRAS fundazioa buru osasun arazoaren eraginez desgaitasuna duten pertsonak Teknologia Berrietan murgiltzeko izaten dituzten zailtasunen jakitun da, eta hori kontuan hartuta, azken urteetan **laguntza erremintak** garatu ditu aukera berdintasunaren alde lan egiteko. Aurrera eraman dituen ekintzetako batzuk eta jarri dituen bitarteko batzuk hauek izan dira: on-line formakuntza plataformak, (Red E-ability eta Accede proiektua), lan-sareak eta ezagutzak partekatzea, senide eta erabiltzaileei zuzendutako ziberterapiak (Psicoed), ordenagailu bidezko eta distantziako lehenetaz kognitiboa (Tele-Gradior), Internetarako sarbide puntuak martxan jartzea,

eta, bukatzeko, enpresariak eta enplegu eskaera egin duten buru gaixotasunagatik desgaitasuna duten pertsonak harremanetan jartzeko webgune bat.



<http://www.intras.es/>



<https://www.facebook.com/fintras>



<https://twitter.com/fintras>

### ALTZARIAK ETA AROTZERIA LEHENERATZEKO OKUPAZIO-TAILERRA (Jerez de la Frontera–Cadiz)

Buru osasun arazoak dituzten pertsonentzako okupazio-jarduera da, eta AFEMEN-Fedeages Cadizek (Cadizko buru gaixotasuna duten pertsonen eta familien elkarte) bultzatu du. Iniziatiba horrek, era berean, enplegurako gaitasuna eskaintzen du arotzerian formatuz, eta altzarien leheneratzea aurrera eramanez. Buru gaixotasun larriak dituzten pertsonak dira partaideak, SASan (Andaluziako osasun zerbitzua) artatzen dituztenak.

Tailerra begirale batek gidatzen du, eta, batez beste, 19 lagunek parte hartzen dute. Parte hartuko duten pertsonak hautatzeko eta euren emaitzak ebaluatzeko etengabe koordinazioan dabilta eskualdeko Buru Osasun Unitatearekin. Horretarako, noizean behin, bilerak egiten dituzte begiraleek eta elkarteko gizarte langileek, erizain, laguntzaile eta unitateko gizarte langileekin. Besteak beste, topaketa horietan kasuen jarraipena egiten dute, eta sor daitezkeen arazoei nola aurre egin daitekeen eztabaidatzen dute. Horrez gain, programarako profilik egokiena zein pertsonak duten aztertzen dute.



<https://www.facebook.com/afemen.asociacion>



<https://twitter.com/afemen>

### JOSKETA TAILERRA

Arabako Gizarteratzeko Institutuak aurrera eramaten duen ikastaro bat da eta buru osasun arazoak dituen pertsona batek ematen du ASASAM elkartearen bidez. Ikastaroa baztertze arriskuan dauden pertsonen zuzenduta dago. Zehazki, hamabi emakume atzerritar eta boluntariok parte hartzen dute.



<http://www.irsearaba.org/>



<https://www.facebook.com/IRSE-araba-217088523624/>



<https://twitter.com/IRSEaraba>



[https://www.youtube.com/channel/UC3UiEy2pqQAKr\\_VTeRmPnEQ](https://www.youtube.com/channel/UC3UiEy2pqQAKr_VTeRmPnEQ)

*Enplegua lortzeko bitartekotza:*

### LOCOS POR LA BICI (Gaztela eta Leon)

LOCOS POR LA BICI enplegua sortzeko, parte-hartze soziala bultzatzeko eta gizarte-bazterketa arriskua murrizteko plan bat da. Buru gaixotasun arazo larriak eta

luzarokoak dituzten pertsoneri zuzenduta dago. INTRAS fundazioak eramaten du aurrera, ARTMO BENE S.L Enplegu Zentro Bereziaren bidez. 2012an jarri zuten martxan, bizikleten konponketa eta mantenuaren negozio ildo zabaldu eta modernizatu ondoren. Hori bizikleta elektrikoaren sustapenera, salmentara, konponketa eta mantenua bideratu zuten. Horrenbestez, kalitatezko lanpostu berriak diseinatu zituzten, langile guztien etengabeko prestakuntza sustatuz bizikleta elektrikoaren mantenu eta konponketa.



<http://www.intras.es/>



<https://www.facebook.com/fintras>



<https://twitter.com/fintras>

*Enpresa ekimena:*

### **Equal Tandem Costa del Sol proiektua (Andaluzia): Enpresa egituren sorkuntza**

Equal Tandem Costa del Sol proiektua FAISEMek sortu du (Andaluziako buru osasuna duten pertsonen gizarteratzearen aldeko fundazio publikoa), eta Equal Komunitate Iniziatibaren (2004-07) barruan dago. Europako Gizarte Funtzak ere finantzatzen laguntzen du. Proiektuaren helburu nagusia lan merkatuaren diskriminazioaren kontra lan egitea da. Horretarako, lan estrategia berriak sortuko ditu buru gaixotasun larriak dituzten pertsonentzat, batik bat, enplegu autonomoa sustatuz. Andaluziako Costa del Sol mendebaldeko 11 herrietan eramango dute aurrera: Torremolinos, Benalmadena, Fuengirola, Mijas, Marbella, Ojén, Istán, Estepota, Manilva, Benahavís eta Casares. Era berean, Garapenerako Taldea eratu dute. Zazpi erakundek osatzen dute, Andaluziako Juntaren enplegu kontseilaritza buru dutela.

Proiektuaren harira, hiru bloke handi landu dituzte buru osasun arazoak dituzten pertsonen artean enplegua sustatzeko: - Soldatapeko moduan txertatzea – Lurraldean mantenduko diren enpresa egiturak sortzea – Autoenplegua.

Bakarrik autoenpleguaren proiektuari begiratuta, aipatu behar da ez dela aurrekaririk topatu Andaluzian buru gaixotasun larriak dituzten pertsonen autoenplegua sortzeko arloan.

Ekintza ildo hori aurrera eramateko elkarlanean eramandako kudeaketa ibilbide bat diseinatu zen. Bertan, pertsona onuradunarekin lan egiten da enpresa ideia garatzen laguntzeko. Kasu horretan, jarraipen psikosoziala eta pertsonala egiten duten tutoreekin eta autoenplegu garapen agenteekin ere lankidetzan aritzen dira. Proiektuan zehar, profila betetzen zuten 20 lagunekin lan egin dute, eta motibatuta egoteaz gain, negozio ideiak zituzten. Horietatik bederatzik enpresa proiektua bere osotasunean gauzatzea lortu dute, eta horietatik hiru emakumeak izan dira.

Horrez gain, enpresen kudeaketa lantzeko prestakuntza prozesu batzuk ere egin zituzten, eta urtebetez aholkularitza zerbitzua ere eskaini zitzaion langile autonomoei zerga, lan eta kontabilitate arloetan.







<http://www.faisem.es/index.php/es/>

 <https://www.facebook.com/FAISEM-293783697333096/>  
 <https://www.youtube.com/user/CANALFAISEM>

## APUNTS (Katalunia)

Apunts Fundació Joiaren gizarte ekonomia enpresa da, irabazi asmorik gabekoa eta buru osasun arloan espezializatutakoa. Bartzelonan dago. Gizarte balioko katearen bidez, diseinu eta mezularitza zerbitzuak eskaintzen ditu enpresaren gizarterantzukizun parametroak kontuan hartuta: diseinu zerbitzua, inprimaketa digitala eta offset, merchandising, formatu handiak, post-inprimaketa eta mezularitza. 80 lagunetik gorako lantalde profesionalak betetzen ditu eginkizun horiek guztiak. Horietatik %80k buru gaixotasunarengatik desgaitasuna dutela adierazten duen ziurtagiria dute, eta etengabeko lan-prestakuntza jasotzen dute.

 <http://www.cetapunts.org/es>  
 <https://www.facebook.com/cetapunts>  
 <https://twitter.com/cetapunts>  
 <https://www.youtube.com/channel/UCUB6OosmnkbCOMtCjPrqjbQ?feature=mhee>  
 <https://www.instagram.com/cetapunts/>

*Gizarteratze eta laneratzearen esku-hartze integrala:*

## Elkarkide (Nafarroa)

1991n martxan jarri zenetik, Elkarkide gizarte ekimeneko enpresa da, eta erreferente bat desgaitasuna duten pertsonen eta gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonen gizarteratze eta laneratzean. Buru osasun arazoak jasaten dituzten pertsonen laguntzea lehenesten dute, euren bizi-kalitatea hobetzeko.

Hori gauzatzeko Okupazio-Zentroak, Enplegu Zentro Berezia, Gizarteratze eta Laneratze Zentroa, Erakunde publiko eta pribatuentzako Laguntza Teknikoa eta Enpresa Arruntetan Txertatzeko Zerbitzuak erabiltzen ditu

Zentro eta zerbitzu guztiek Gizarteratze eta Laneratze Zirkuitua osatzen dute, eta horren bidez, Elkarkiden parte hartzen duten pertsonen gizarteratze eta laneratze ibilbideak osatu eta garatzen dira.

 <http://www.elkarkide.com/>  
 <https://www.facebook.com/elkarkide/>

## Los Juncos (Murtzia)

ISOL Murtziako leheneratze psikosozialeko elkarteak garatutako proiektua da.

ISOL programa buru osasun arazoak edota droga-menpekotasun arazoak (patologiadunak) dituzten pertsonak laneratzeko proiektu bat da, eta lan merkatuan sartzeko lanean dihardu lan bilaketa aktiboan prestakuntza-ekintzak, tutoretza eta laguntza eskainiz. Beraz, erabiltzaileek ofizio bat ikasten dute, euren profil profesionala osatu eta hobetzen dute, eta lana bilatu eta mantentzeko baliabideak lortzen dituzte. Ikasketa, bilaketa eta laneratze prozesu guztian laguntza eskaintzen zaie.

Los Juncos familia aisia parkearen instalazioak kudeatzen ditu. Helburu nagusia adimen desgaitasuna duten pertsonak lan munduan txertatzea da.

Los Juncos Ibn Arabi txertatze psikosozialeko proiektuaren barruko lan-ildoetako bat da, eta Europako Gizarte Funtsak diruz laguntzen du. Horri esker, 50.000 metro koadroko orubean eraiki dituzte instalazioak, garai bateko udal-hondakindegian, Chorrico errepidearen alboan

2005ko martxoan jarri zen proiektua martxan, eta, orduz geroztik, buru osasun arazoak dituzten 228 pertsonak jaso dute lan aurreko informazioa lan merkatuan txertatu ahal izateko. Ekimena Ucomurrekin elkarlanean ibili da modu zuzenean, honako programak aurrera eramanez: bideragarritasun programak, enpresa-planak eta lana bilatzeko laguntza.

Proiektu horri esker, bi enpresa sortu dira, eta 14 laguni eman zaie lana parkean bertan.

Gaur egun, hirugarren enpresa bat sortzeko lanean ari dira, eta parkearen hainbat lan-erlotan formakuntza emango zaie beste 65 pertsoneri.

Los Juncos parkeak futbol eskola, padel pista, tokiko haur ludoteka handiena (1.000 metro koadroko pabiloia du), zortzi metroko altuera duen rokodromoa, 40 metroko tirolina eta bolez betetako pista amerikarra ditu. Horrez gain, jolasteko eta abenturazko kirola egiteko espazio librea dauka.

Lan ildo nagusia gizartearen sektore babesgabeenetako batentzat enplegu-gune bat sortzea da, baina Molina de Segurako herritarrentzako aisia ere eskaintzen du.



<http://www.isolmurcia.org/>



<https://www.facebook.com/Asociación-Murciana-de-Rehabilitación-Psicosocial-818902214844214/>




*Besteak (sentsibilizazioa, metodologiak...)*

### **Ezagutzaren kudeaketarako ISIS metodologia: Equal Tandem Andalucía proiektua**

ISIS ezagutza aplikatua kudeatzeko metodologia bat da, gizarte esku-hartze proiektuetara eta enpresen sorkuntzara bideratutakoa. FAISEMek bultzatutako proiektua da, eta Equal Komunitate Iniziatibaren barruan dago. Europako Gizarte Funtsak ere finantzatu du. Helburu nagusia lan merkatuaren diskriminazioaren aurka lan egitea da. 2006ko otsailean egin zen lehen proba pilotua Equal Tandem proiektuaren barruan.

Gizarteratze eta enpresa sorkuntza proiektuetan talde teknikoa arduratzen da ezagutzaren sistematizazioa eta sorkuntza aurrera eramateaz, baina, askotan,

eguneroko eginkizunekin eta premiekin beste une batzuetarako uzten da. Proiektuan tekniko bat sartuko balitz eta berak hartuko balu horren ardura, aukera gehiago egongo lirakeke proiektu batek arrakasta lortzeko praktika gainbegiratu daitekeelako prozesu osoan, informazioa sistematizatu daitekeelako eta entitateei informazio bera edukitzeko aukera izango dutelako. Aurrera eramandako praktikaren gaineko ezagutza sortzen da, eta, modu horretara, ez da bakarrik esperientzia batean geratzen. Hala, esperientzia bera gizarteratu eta hedatu daiteke.





 <http://www.juntadeandalucia.es/empleo/equal/npe/www/doc/469.pdf>  
 <https://www.facebook.com/FAISEM-293783697333096/>  
 <https://www.youtube.com/user/CANALFAISEM>

### Radio Himalía (Santa Cruz de Tenerife)

Radio Himalía Kanarietan buru osasun arloan martxan jarri den egitasmo aitzindaria da, eta buru osasuna kalera ateratzea du xede. Tenerifeko Kabildoaren eta Irrati-Telebista autonomikoaren laguntza du.

Irratsaio bat aurkeztu eta gidatuko dute protagonistek, buru osasun arrazoiengatik sufritu duten pertsonak. Horrela, istorio horiek entzunak izango dira gure gizarteak hobeto uler ditzan pertsonari atxikitutako egoera horiek, eta, era berean, horienganako tolerantzia zabal dezan. Horiek guztiak adituak dira, lehen pertsonan bizi izan dutelako esperientzia hori, eta, horregatik, interesgarriak izan daitezke entzuleentzat.

Irratsaio horren bidez, gizartearekin komunikatzeko bide berri bat irekitzen da buru osasunaren errealitatea kontatzeko, sufrimendu eta ondoez psikiko baten ondoren bizitza nola berreskuratzen den ezagutarazteko eta kolektibo honetako pertsonak euren proiektuak nola garatu ditzaketen kontatzeko. Mezu hori beharrezkoa da buru gaixotasunaren inguruan dauden mito eta aurreiritzien kontra egiteko.

 <https://saludmentalafes.org/>  
 <https://www.facebook.com/AFES-Salud-Mental-151165908257543/?fref=ts>  
 <https://twitter.com/saludmentalafes>  
 <https://www.youtube.com/channel/UCARjMshXNUzZr9a0JQcND7Q>

### Enpleguaren aldeko kanpaina (Madril)

Manantial fundazioak martxan jarritako sentsibilizazio kanpaina da, zehazki, enpleguak edozein pertsonaren bizitzan duen garrantzia nabarmentzeko buru osasun arazoren bat izan ala ez izan.

RicaMente tabernako terrazan lan egiten duten profesionalak egindako sei bideo-tutorial baliatzen ditu kanpainak. Pausoz pauso "munduko errezeta onenak" nola egiten diren azaltzen dute, eta sekretu bat kontatzen dute: ilusioa eta etengabe hobetzen jarraitzea dira gakoak bizitzako arlo guztietan. Sukaldari eta zerbitzarien ikuspegi

profesionalean oinarritzen dira, eta euren berezitasunak zeintzuk diren azaltzen dute, bakoitzaren diagnostikoari erreferentziarik egin gabe.



<https://www.fundacionmanantial.org/index.php>



<https://www.facebook.com/FundacionManantial>



<https://twitter.com/FundManantial>



<https://www.youtube.com/user/FundacionManantial>



<https://www.instagram.com/fundacionmanantial/>

### **Beste praktikak:**

*Enplegurako prestakuntza eta kualifikazioa:*

#### **PROYECTO UNIDOS (Espainia)**

Adecco fundazioaren proiektu bat da, eta horren bidez, hainbat mekanismo sortu eta sustatzen dituzte desgaitasuna duten pertsonak unibertsitateara sartu eta ikasketak egin ahal izateko. Proiektu honek berritasun nagusi bat dauka, unibertsitateek eta enpresek elkarlanean parte hartzen dutela desgaitasuna duten unibertsitate ikasleak laneratzeko prozesuan. Adituek eta hainbat sektoretako profesionalak koordinatutako orientazio eta mentoring programa baten bidez, ikasleak laguntza profesionala edukiko du ikasketa garaian eta baita laneratzekoan ere.



<http://www.proyectounidos.es/>



<https://www.facebook.com/fundacionempleaa/>



<https://twitter.com/fundacionemplea>



<https://www.youtube.com/channel/UCHMxdqMI1HC8HxOd3htuviQ>

#### **SUPÉRATE (Puerto de Santa Maria - Cadiz)**

“Supérate: beste desgaitasunak dituzten pertsonak laneratzeko coachinga” programaren helburua La Gaviota elkartearen Enplegu Poltsaren barruan dauden aniztasun funtzionaldun pertsonak laneratzeko da. Horretarako, euren enplegarritasuna eta lorpenen motibazioa lantzen dituzte coaching metodologia erabiliz. Metodologia hori zeharkakoa izango da eta prozesu osoan zehar eramango da aurrera bakarkako eta taldekako saioak etengabe eskainiz.

Ikuspegi berri horrek partaideak ikasketa transformazionala egitera bultzatzen ditu, “egitetik izatera” igaroz. Hala, bakoitzak bere burua ezagutzeko babes eskaintzeaz gain, enplegu arloan eta ibilbide profesionalean zein helburu lortu nahi dituzten finkatzen laguntzen die erabiltzaileei. Etengabeko feedback saioetan oinarritzen da,

personaren uste mugatzaileetan eragiten dute eta horiek eraldatzen saiatzen dira, ondoren, errealitatea eraikitzeko eta batez ere EKITEKO forma berriak ager daitezen.



<http://asociacionlagaviota.es/>



<https://www.facebook.com/asociacion.lagaviota/>

*Gizarteratze eta laneratzaren esku-hartze integrala:*

### **POR TALENTO (Espainia)**

Por Talento programak desgaitasuna duten pertsonen artean formakuntza eta lana sustatzea du xede, eta horretarako hainbat inizatiba jarri ditu martxan. Inserta Empleok (ONCE fundazioaren bitartekaritzan aditua den erakundea) kudeatzen ditu Europako Gizarte Funtzak finantzaturako Gizarteratze eta Gizarte Ekonomia Programa Operatiboaren barruan (POISES).



<https://www.portalento.es/>



<https://es-es.facebook.com/PorTalento/>



[https://twitter.com/portalento\\_](https://twitter.com/portalento_)



<https://www.youtube.com/user/PorTalento1>

*Besteak (sentsibilizazioa, metodologiak...):*

### **ECATIC (Espainia)**

EcaTIC tresna *Babestutako Enplegua eta IKT: tabletaren gaineko aplikazioak* egitasmo pilotuaren emaitza da. ONCE fundazioak zuzendu eta finantzatu du. IKTek eskaintzen dituzten aukerak baliatzea da proiektu honen xedea, eta, zehazki, tabletak. Teknologia horretarako aplikazio bat garatu nahi dute Babestutako Enpleguari euskarri bat emanaz. Horrela, erabiltzaileak bere helburuak autonomia handiagoz lortzea da asmoa, eta lan prestatzaileak, berriz, eragingarritasun handiagoa lortzea. Erreminta horrek Diseinu Unibertsaleko ikuspegia lantzen du eta erabiltzailean zentratzen da. Hala, aniztasun funtzionalen askotariko profilek dituzten eskakizunak kontuan hartzen ditu, komunean dituzten puntuak eta ezberdintzen dituztenak kontuan hartuz. Horrez gain, lan inguruak ere aintzat hartzen ditu.



<http://www.ecatic.org/>



[https://twitter.com/EcaTIC\\_empleo](https://twitter.com/EcaTIC_empleo)



<https://www.youtube.com/channel/UChMxdqMI1HC8HxOd3htuviQ>



## E-IMPACT (Espainia)

La Red Emplea E-Impact erakunde, profesional, aditu eta Emplea fundazioa buru duten enpresek osatutako sare bat da. Programa berritzaileak garatzen dituzte, gero, gizartearen kolektibo babesgabeen laneratzean eta gizarteratzean eragiteko.

Sare aktibo eta proaktiboa izanik, ez du bakarrik informazioa ematen, babesa eta aholkularitza ere eskaintzen ditu gizartean hobeto txertatu ahal izateko.

Sare honek balioan jartzen ditu proiektuetan inbertitutako baliabideak, horiek maximizatuz eta ahal bezain eraginkor bihurtuz. Sareak egin diren inbertsio guztien itzulera soziala neurtuko du horien kontrola eraman eta hobetzen jarraitzen laguntzeko.

Proiektuak aurrera eramateko hiru E-tapatako prozesua jarraitzen du Red E-Impactek: hasteko, sistema berritzailea sortzea; ondoren, erakundeetara bideratzeko profesionalean beharrezko formakuntza; eta, bukatzeko, "Know How" eta praktika egokiak partekatzeko sarea. Bizitza ziklo bat da fase guztietan osatzen eta atzeraelikatzen joaten da.



<http://fundacionemplea.org/>



<https://www.facebook.com/fundacionempleaa/>



<https://twitter.com/fundacionemplea>



<https://www.youtube.com/channel/UCHMxdqMI1HC8HxOd3htuviQ>

## 9.ERANSKINA II: DATUEN BILKETA FITXA

*BURU GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA  
LANERATZEAREKIN LOTUTAKO ESPERIENZIA INTERESGARRIAK*

### ESPERIENTZIAREN ETA ENTITATEAREN OINARRIZKO DATUAK

Entitatearen izena

Entitatearen kokapean (**egoitza nagusiaren lurraldea eta herria zehaztu**)

Entitate mota (**Administrazio Publikoa, Hirugarren Sektoreko erakundea, Enpresa...**)

Erakundearen ekintza arloak (**Dependentzia-Helduak, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Askotarikoak, Besteak...**)

Entitatearen tamaina (**Ordainpeko pertsonen kopurua...**)

Esperientziaren izena: TITULUA (**Programaren sintesi-izena, zein den partekatu nahi den baliabide edo ekimena...**)

Esperientziaren deskribapen laburra: IDEIA (**azaldu 10 lerrotan gehienez partekatu nahi den esperientziaren nondik norakoak...**)

Kontaktuaren datuak (**norbaitek informazio gehiago jaso edo kontsultaren bat egin nahi izanez gero, norekin kontaktatu beharko lukeen ...**)

Harremanetarako pertsona:

Helbidea:

Telefonoa:

Emaila:

Informazio gehiagorako webgunea:

---

## ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPENA

---

**ERRONKA** edo gainditu nahi den desafioa (**dimentsioren batekin edo arrisku zehatz batekin lotuta jar daiteke...**)

Partaideak eta rola (**nortzuk parte hartzen duten eta zein den kolektibo bakoitzaren rola...**)

Beste erakundeak eta inplikaturako agenteak (**esperientzia bultzatzen duen entitateaz gain, besteren bat ere konprometitu bada bakarrik...**)

Nola sortu da, testuingurua

Helburuak

Aurrera eramandako jarduerak, iraupena eta aldizkakotasuna

Aurrera eramaten den espazioa edo tokia

Ebaluazio sistema (**nola eta noiz ebaluatzen da...**)

Ibilbidea eta etorkizuneko aukerak (**noiztik dagoen martxan, zein aurreikuspen dauden...**)

Emaitza nabarmenenak (**helburuak lortu diren, emaitza positibo eta espero ez ziren emaitza negatiboak, prozesuarekin duten asebetetzea ...**)

Erreplikatzeko aholkuak (**norbaitek horrelako ekimen bat martxan jarri nahiko balu**)

**zein aholku emango litzaioke...)**

**Bestelako informazioa**